

Herririk Herri | 6

Elkartasun Jaialdia antolatu du domekarako Kainabera GKEak Elorrion



Berbaz | 10

Maite Euba: "Euskaltegiko lana ez da ikasleak euskalduntzera mugatzen"



Gabonetako gehigarria



DURANGALDEA | 4

Presoen aldeko Herri Bilguneak hainbat ekitaldirako deia egin du

Elorrion, Iurretan eta Abadiñon "presoen eskubideen alde bidea egiteko" ekitaldiak prestatu dituzte asteburuan

Abenduaren 30ean Durangon eta urtarrilaren 7an Bilbon egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egin dute



DURANGO | 2

Erraldek Bizkaiko udalei ateak zabaltzeko

Bizkaiko udalei Erralden parte hartzeko deia egin die hiltegiako zuzendaritzak. Asteon batzarra izan dute hiltegian, proiektuaren egoera zertan den bertatik bertara azaltzeko.



KULTURA | 13

'The Full Monty' filmaren antzerkirako bertsioa Berrizen

Txintxaun Kolektiboa talde berriztarak azken urtean landu duen antzerki obra estreinatuko du abenduaren 17an Berrizko Kultur Etxean. Emanaldirako sarrera guztiak agortuta daude dagoeneko.



Durangaldea | 3

Gorka Larrinagak irabazi du Anbotoren egutegiko lehiaketa

Mañaria | 6

Bigarren eskuko azoka domeka honetan, 14 erakusmahaigaz

Atxondo | 8

Bidegorrian 25 metro hesi ostu zituzten joan zen bariku gauean

Berriz | 8

Musika Etxea 2012 hasieran martxan jartzea gura du udalak

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak
@anboto

■ DURANGO

16 udalerrik bertatik bertara ezagutu dute Erralderen proiektua

Mikel Ansotegi presidenteak Erralderen egoera azaldu die dei orokorrari erantzun dioten udalei

Erralde hiltegiak biziraun dezan finantziarioa lortzeko zutabeetako bat Bizkaiko udalerrien atxikimendu zabalagoa lortzea da. Gaur egun, 15 udalerrik osatzen dute Erralde eta Bizkaian 112 daude. Bide horretatik, "Bizkaia osoari eskaintzen zaion zerbitzua" denez, martitzenean udalerrri guztiei zuzendutako deialdi orokorra egin zuen Erralde. Guztira, 16 udalerrri batu ziren.

Hain zuzen ere, Iurreta, Zaldibar, Ondarroa, Lekeitio, Igorre, Ubidea, Gizaburuaga, Ajangiz, Berriatua, Lemoa, Ea, Arrankudiaga, Busturia, Elantxobe, Markina eta Etxebarriko ordezkariak batu ziren Erralderen egoera eta egitasmoa jakinarazteko batzarra. Mikel Ansotegi Erraldeko presidentearen berbetan, "Dene-tariko herriak batu dira; Erralder-a sartzeara erabakita dutenak, epe laburrean ez bada ere sartzeko interesa dutenak, eta gaiaren ingu-

ruan nork bere udalerrian eztabaida zabalduko dutenak". Ansotegik ez zuen argitu zeintzuk diren Erraldera batuko diren udalerrriak. Aurretik hiltegi berrirako finantziario osoa ondo lotu gura dute: "Guk beti esan dugu obrak ez direla hasiko azken adreilua ere ipiniko den segurtasuna izan arte. Herriak banan-banan barik, aldi berean

Erralde proiektua udaletxez udaletxe azaltzen joango direla dio zuzendaritzak

Datorren astean Jaurilaritzagaz batuko dira Europar Batasunak jakinarazitakoak sakontzeko

batzea dugu helburu, estrategia definitubaten barruan". Udalerriekin izandako "lehen kontaktua" ontzat jo badute ere, "Erralderen proiektua herriz herri eta udalez udal azaltzeko asmoa" jakinarazi dute. Gogoratu duenez, sasoi batean 48 udalerrik osatu zuten hiltegia.



Tamaina, nortasun eta eskualde askotako udalerrriak etorri zirela azpimarratu du Erralde.

Jaurilaritzagaz batzarra

Bitartean, datorren astean Eusko Jaurilaritzagaz batzartuko dira. Europar Batasuneko ordezkariekin egindako batzarraren nondik norakoak azalduko dizkiete: Eusko Jaurilaritzaren eskumena dela eta euren dagokiela proiektua sostengatuko duen txosten eraginkorra osatzea argitu gura dute. Lan horretarako Erralde "erabateko prestutasuna" erakutsi du.

Bestalde, EHNE sindikatuak eta Erralde deituta, joan zen domekan manifestazio jendetsua egin zuten Durangon. Erralderen webgunean (erralde.org) ere hiltegiaren aldeko atxikimenduak jasotzen dabilta eta hainbat udalerrik, elkarte eta norbanakok eman du izena dagoeneko. ■ J.D.

Bilduk kontrol mahaia eratzea proposatu du

Bilduk joan zen astean auzotarren batzordeak egindako kritikei erantzun die. Herria elkar-teagaz elkartu ez diren arren, egoera lehenengo eskutik eza-gutzen dutela azaldu dute, "lagun, ezagun, kideek... gugaz berba egin dutelako". Hala ere, "umiltasun osoz" onartzen dute, batzordeagaz ez batzea "agian akats larria izan dela". Bilduk "Erralde proiektu estra-tegikotzat" hartzen du, "baina aldi berean auzotarrek jasan-

dakoa momentu askotan gehie-gikeriatzat hartzen dugu".

Elkarbizitza bermatzeko eta Erralderen sorrera proze-sua jarraitzeko kontrol mahaia sortzea proposatu du Bilduk, gutxienez hilean behin batu-kolitzatekeena. Ondoren, balo-razio batzorde bat sortuko litza-teke aurrera begirako pausoak adosteko. Batzordea auzo elkarteek, auzotarrek, udalak, alderdi politikoek eta Erralde osatuko lukete. ■ J.D.

Azokaren erregulazioa "egiteke" dagoela gogoratu dute baserritarrek

Alderdi batzuekin bai, baina udalagaz ofizialki ez direla batzartu diote



'Baserritik plazara' ekimenaren bitartez eskualdeko azokak indarberritu gura dituzte.

Durangoko merkatu plazan pro-dukutuak saltzen egoten diren base-rritarrek azokaren egoera erregu-latzeko eta hobetzeko hainbat neu-rrri proposatu zituzten udalari martxoan. Harrezkero bederatzi hilabete joan dira, eta Udaspal Alberdi baserritarrak adierazi due-nez, udalak "oraindik" ez ditu "eze-lako batzarrera deitu gaiari buruz berba egiteko".

Denbora horretan guztian hainbat alderdigaz kontaktuak izan dituztela dio, baina "udala-gaz ofizialki bat ere ez": "Alderdiek jakinarazi digute gaia batzordee-tan lantzen dabilzala, baina errea-litatea da bederatzi hilabete joan direla, urtea amaitzear dagoela, eta ez dela aurrerapausorik eman".

Baserritarren eskakizunak hiru puntu nagusitan laburbildu daitezke: eskuragarri dauden mahaian banaketa erregulatzeara,

postuak dituzten ekoizleei apar-katzeko erraztasunak ematea, eta errebendedoreei aurre egitea. Bigarren fase batean azokaren nondik norakoak eztabaidatzeko batzordea eratzea ere proposa-tzen dute, udalaren eta baserritar ekoizleen artean.

Andra Marian egon direnean "deskontrola egon da, eta udaltzainik ez da agertu"

Azken asteetako jazoerak

Euskal Denda dela eta azokak Andra Mariko elizpean eman dituen hiru asteetan baserritarren pazientziak gainezka egin du. Lehen asteburuan mahaiekin "des-kontrol handia" egon zela diote: "batzuek asko hartu zuten eta bes-te batzuek etxetik ekarri behar". Postuak kokatzeko ere eztaibadak sortu zirela diote. Hurrengo astean udalak hori erregulatzeko informa-zioa banatu zuen baserritarren artean, "baina ez zen udaltzainik egon agindatutakoa betetzen zen ala ez segurtatzeko". ■ J.D.

Errebendedoreak kentzea eta mahaian banaketa orekatua eskatzen dituzte, besteak beste

Astarloa Saria jasoko du Jesus Egiguren musika konposatzaileak

Astarloa kultur elkarteak urtero banatu ohi duen Astarloa Saria Jesus Egiguren (Durango, 1945) musika konposatzaileari emango diote aurten. Abenduaren 20an, 20:00etan, Durangoko Batzokiko batzar aretoan egingo duten ekitaldian, Astarloa kultur taldeko presidentea den Larratiz Diagoren eskutik jasoko du saria Egigurenek. Horrela, bere bizitza osoan musikari egindako ekarpen aberatsa aintzatetsi gura diote.

Aurten bertan EOSentzako 'Kindly Symphony' obra sortu eta estreinatu du Egigurenek

Jesus Egigurenek ibilbide oparoa du musikagintzan. Esaterako, aurten bertan Euskadiko Orkestraren enkarguz *Kindly Symphony* obra sortu du. Bere beste hainbat pieza Madril eta Frankfurtoko jaialdi entzutetsuetan estreinatu dira eta, besteak beste, 1994an Luis de Narvaez saria irabazi zuen. Durangoko Musika Eskolako sortzaileetako bat da eta bertan dihardu irakasle. Bartolome Ertzilla orkestrako zuzendaria ere bada. ■ J.D.

154.000 euro aurreztu ditu aurten udalak argindarrean

Durangoko Udalaren Toki Agenda 21ean eta aldaketa klimatikoaren kontrako planean jasotako ekintzei esker, Durangok %25ean murriztu du faktura-gastua azken hiru urteetan, udalak jakinarazi duenez. Horretarako, 223 luminaria aldatu dira, kontsumoa %60 murriztuz. Leku batzuetan, gainera, mikroLED erako luminariak ipini dituzte.

2011ko argindarraren fakturazioa 306.000 euro inguruan ibiliko dela diote, eta aipatutako inbertsioak egin barik faktura 460.000 eurokoa izango litza-teke; horretara, 154.000 euro aurreztu dituzte.

Inbertsioen kostua 550.000 euro inguruko izan da, eta udalak 170.000 euro inbertitu ditu; gainerakoa Energiaren Euskal Erakundeak (EVE) lagundu du diruz. Aipatutako ekintzekin udalak amaitutzat jo ditu argindarra aurrezteko ekimenak. ■ J.D.

Argindar azpiegiturretan hainbat aldaketa egin dituzte azkenaldian

DURANGALDEA

Gorka Larrinagak irabazi du Anbotoren egutegiko lehiaketa

Otxandioko baserri baten argazki koloretsua izan da saritutako lana

Anboto Komunikabideak-ek lehenengoz argazki lehiaketa bitartez aukeratu ditu 2012ko egutegiko argazkiak. Aditu talde batek osatutako epaimahaiak Gorka Larrinaga abadiñarraren argazki bat aukeratu du irabazle moduan, hainbat parte-hartzailearen artean. Ondorioz, 500 euroko saria irabazi du. Argazki irabazlean Otxandioko Antzarpozueta baserria ageri da. Egutegian zehar Larrinagaren beste hainbat argazki ere ikusi

Abadiñarrak 500 euroko saria irabazi du egutegiko argazki lehiaketa irabazita

daitezke, eta baita beste parte-hartzaile batzurenak ere: Arkaitz Egia, Nerea Aiartzaguen, Jabier Ugalde eta Julen Lizarralderenak.

Larrinagak "oso pozik" dagoe-la adierazi du, eta bere kameraz gainera "ilusioa eta dedikazioa" izan dituela lanabes. Jone Guenetxea Anbotoko zuzendariak azaldu duenez, "lehen aldi honek harrera ona izan du eta datorren urtean ere bide beretik jarraitu-

Egutegiko 12 hileetan zehar beste parte-hartzaile batzuen argazkiak ere ageri dira

ko dugu". Egutegiak dagoeneko eskuragarri daude eskualde 12 herrietako ohiko saltokietan, euro biko prezioan. ■ J.D.



Gorka Larrinaga eta Jone Guenetxea zuzendaria, egutegiagaz.



XXIV. OLAZAR ESKUPILOTA TXAPELKETA ZALDIBAR

ABENDUAREN 22-AN FINALERDIAK GAUEKO 21:30EAN

BINAKA



YOLDI - ARRATIBEL
(Nafarra) (Gipuzkoarra)



ALBARADO-PEREZ-en aurka
(Arabarrak)



ELEZKANO I - GORROTXATEGI
(Bizkaitarra) (Gipuzkoarra)



ALTZELAI-DIEZ-en aurka
(Bizkaitarrak)

FINALAK, 4 1/2 BARRUAN ETA BINAKA, ABENDUAREN 31-AN JOKATUKO DIRA ARRATSALDEKO 16:30-EAN.













DURANGALDEA

Presoen eskubideen alde bidea egin gura du Herri Bilguneak

Eskualdeko hainbat herritan ekitaldi sortak prestatu dituzte astebururako

Presoen eta euren senide eta lagunek bizi duten egoera "bidegabea gainditzeko" sortu duten Herri Bilguneak hurrengo egunetako ekitaldien berri eman du; tartean, hilaren 30ean Andra Maritik abiatuko

Durangon manifestazioa egingo dute abenduaren 30ean, 20:00etan, Andra Maritik

duten manifestazioa. Durangon ez eze, Abadiñon, Iurretan eta Elorrio ere hainbat ekitaldi prestatu dituzte asteburu honetan zehar: bazkari, kontzentrazio, hitzaldi...

Herri Bilguneko kideen esanetan, "gatazka politikoa gaindi-

tzeko ahaleginen emaitzak ikusten gabe azken aldian, eta oinarri horiek ardatz moduan hartuta, giza eskubideen urraketa lehenbailehen desagertu dadin lan egiteko asmoa daukagu, presoen egoera agenda politikoan dagoelako". Horregatik, *Egin dezagun bidea* lelopean, "herriz herri ahalik eta indar gehien bildu eta presoen egoera konpontze aldera lan egin behar dugu" azaldu dute.

Euskal gehiengo sindikal, politiko eta sozialak "hamaika bider eskatu duena indar handiagoagaz exijitzeko unea" dela diote, eta horren harira hainbat ekitaldi pres-

Elorrio, Iurreta eta Abadiñon ere hainbat ekitaldi egingo dituzte asteburuan zehar

"Hamaika bider eskatutakoa indar handiagoagaz exijitzeko unea" dela dio Herri Bilguneak

tatu dute Durangaldean. Durangon, abenduaren 30ean, 20:00etan, manifestazioa abiatuko dute Andra Maritik. Abenduaren 24an, berriz, kantaldia antolatu dute, goizeko 11:00etatik aurrera.

Era berean, urtarrilaren 7an 17:30ean Bilbon egingo den mobilizazio orokorrera joateko deia ere egin dute. ■ J.D.

EGITARAUA

DURANGO**Abenduak 24**

- 11:00 kantaldia

Abenduak 30

- 20:00 manifestazioa Andra Maritik

ABADIÑO**Abenduak 16**

- 22:30 'Antipodetara bidaia' hitzaldia, Motxoian

Abenduak 17

- 09:45 txupinazoa
- 10:00 futbito txapelketa
- 11:00 umeen jolasak
- 13:00 kalejira Iluntze eta Talbe Batuak-ekin
- 14:15 herri argazkia
- 14:30 bazkari herrikoia
- 17:00 herri jolasak
- 19:30 poteo alaitua
- 22:30 kontzertuak, Zarraparra, Kilaueta eta Basque Street Boys

IURRETA**Abenduak 16**

- 19:00 Goiuria ikastolan 'Egin dezagun bidea'

Abenduak 24

- 13:00 Iurretako kaleetan Olentzero

Abenduak 30

- 19:30 kontzentrazioa Montoiko biribilgunean

Abenduak 31

- 13:00 kontzentrazioa Askondon

ELORRIO**Abenduak 17**

- 17:00 'Presoei buruz berba egiteko ordua da'. Arriolan. Haurtzaindegi zerbitzua



Santa Ana plazan egindako prentsaurrekoan aurkeztu zituzten Durangoko ekitaldiak.



Durangaldeko egutegia 2012

anboto 
komunikabideak

**HEMEN
SALGAI**

DURANGO: Alpino Taberna, Arkarazo, Pol-Pol, Herriko taberna, Plateruena, Hitz liburudenda, Urrike, Ibaizabal, Kurutziaga, Berbaro; **IURRETA:** Mila janaridenda, Urien, Kopistegia; **GARAI:** Herriko taberna; **ABADIÑO:** Estankoa, Zure denda, Petite, Txirri-txirri, Larrano, Eguzkilore; **ATXONDO:** Prentsa denda; **ELORRIO:** Tximeleta, Ilargi; **BERRIZ:** Fonda, Ganeketxe, Pedro Juan; **ZALDIBAR:** Imendia, Baratza; **OTXANDIO:** Prentsa denda, Danoena; **MAÑARIA:** Errekondo; **IZURTZA:** Azkonizaga, Herriko Taberna; **MALLABIA:** Okindegia, Herrikoa

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Eitua industrigunea
71C
48240 BERRIZ
(Bizkaia)
94 682 45 50
alkimax@alkimax.net



GABONAK OSPATZEKO BEHAR DUZUNA



ETXOLAK-HESIAK



- Ekitaldietarako hesiak
- Itxiera hesiak
- WC eramangarriak
- Aldagelak, etab



BEROKUNTZA



- Gasoleo turboak
- Erradiadore elektrikoak
- Gasezko farolak
- Gasezko turboak



JASOGAILUAK



- Plataforma artikulatuak
- Artazi-plataformak
- Eskailerak
- Eskuzko jasotzaileak



MULTZO ELEKTROGENOA



- Multzo eramangarriak 6000W arte
- Argiztapen multzoak
- Panel elektrikoak
- 800 KVAS arteko multzoak



www.alkimax.com



▶ MAÑANA

Hamalau mahai bigarren eskuko azokan, domekan

Mañariarrek zein Durangaldeko beste herrietako hainbat lagunek erantzun diote udalaren deia

Orain aste bi egin zuen Mañariko Udalak lehenengoz antolatutako duen bigarren eskuko azokan parte hartzeko eta zerbait salmentan ipini gura zutenek izena emateko deia. Mañariko zein Durangaldeko beste herri batzuetako hainbat lagunek ondo erantzun diote dei horri, eta, guztira, hamalau salmahai ipiniko dituzte bigarren eskuko produktuak saltzeko, abenduaren 18ko azokan.

Domekan, 11:00etatik
14:00etara, frontoian burutuko
dute Mañarian lehenengoz anto-
latu duten azoka.

Udaleko ordezkariak azaldu digutenez, euren etxetik liburuak, arropak eta bitxikeriak eramango dituzte azokan salmahaiak ipiniko dituztenek bisitarientzat aukeran. Gainera, etxeko ganbaretatik berreskuratu eta bigarren eskuko azoka horretan altzariak salgai ipiniko dituztenak ere badaude.

Mañariko zein Durangaldeko beste herri batzuetan ekimenak izan duen harreragaz oso pozik agertu diralehenengoz azoka hau antolatatu duten Mañariko Udaleko ordezkariak. ■ I.E.

**Liburuak, arropak, bitxikeriak
eta altzariak eskainiko dituzte,
besteak beste, azokan**

IZURTZA

**Aurtengoa baino
% 3,4 txikiagoa
den aurrekontua
2012 urterako**

Urtea amaitu orduko, abenduaren 21ean burutzea itxaroten duten udal bilkuran aurkeztuko du Bilduko gobernua 2012 urterako udal aurrekontuen proposamena. Atzo batu ziren udaleko alderdi biak ogasun batzordean, eta han aur-

keztu zion Bilduko udal gobernuak EAJko oposizioari aurrekontu proposamena, denera 700.000 euro jasotzen dituen.

Amaitzear dagoen urte hone-
tan udalaren jarduna gidatu due-
na baino %3,4 txikiagoa den aurre-
kontua proposatuko du, aben-
duaren 21ean, Bilduko gobernuak:
inbertsioetarako diru-atal apala-
goa aurreikusi du gobernuak.

Abenduaren 21eko udalbatzar horretan jorratuko dute, bestalde, gobernuak proposaturiko kreditu aldaketa bat ere. ■ I.E.

> ELORRIO



lazko edizioan ere hainbat taldetako kideak batu ziren pilotalekuan. Juanra de La Cruz

Elkartasun jaialdia domekan Kainaberaren eskutik

Eguerdiko 12:00etan hasiko da ekitaldia, Hilario Azkarate frontoian

Orain hamaika urte Ertame-
rika kaltetu zuen Mitch
urakana zela-eta sortu
zuen Kainabera GKEk Elorrioko
Elkartasun jaialdia. Ordutik, urte-
ro antolatuta dute, “herritarren par-
te-hartzeagaz oso gustura”, diote-
nez. Azken urteotan, baina, txiki
geratu zaie Arriola aretoa, eta aurt-
en ere Hilario Azkarate frontoian
egitea erabaki dute, iaz legez.

Hauek dira parte hartuko duten musika edo antzerki taldeak: Agustin Garamendi Musi-

**Zortzi taldek parte hartuko
dute jaialdian, musika edo
antzerkia eskainiz**

Boliviako Oruro eskualdera giza-laguntza bidaltzeko proiektua bultzatuko dute

ka Eskola, Besaide dantza taldea, Durangaldeko Txistulariak, Eduber dantza akademia, Elorrioko Institutua, La Esperanza nagusien elkarte, Lourdesko Ama ikastetxea eta Txintxirri Ikastola. "Arriolako eta udaleko lagunek" frontoia prestatzen lagunduko dute.

Datorren astean janari eta jostailu bilketa hasiko du Kainaberak, Boliviako Oruro eskualde-
ra bidaltzeko. Domekan batuta-
ko dirua ere proiektu horretan
inbertituko dute ■ M.Onaindia

**Ludotekan izena
emateko aukera
berria hilaren
28ra arte**

Trailean zabaldu zuten lehenen-
goz ikasturte honetarako inskri-
bitzeko epea, eta orain bigarren
aukera eskainiko dute, udal ardu-
radunek adierazi dutenez. Udal
Ludotekako zerbitzua erabili gura
dutenek abenduaren 28ra arte-
ko epea izango dute. Udaleko
erregistro orokorrera jo beharko
dute interesdunak; 3 urtetik 12ra
bitarteko umeei zuzenduta dago
zerbitzua, diotenez.

Udaleko erregistro orokorrera jo beharko dute izena emateko interesa daukatenek

Haur eta gazteei “espazio hezigarria” eskaintzea da Ludo-tekaren helburua; errespetua, hezkidetza, kooperazioa, kritiko- tasuna eta ingurumenagazko begirunea lako baloreak susta- tuz, antolatzaileek azaldu dute- nez. Aisialdian euskararen era- bilera indartzea ere badute xede. Astelehenetik barikura egongo da zabalik Ludoteka, 17:00etatik 19:45era bitartean. ■ M.O.

10. urteurrena ospatzeko jaia zapatuan Portalekuan

Kantu-poteoa, parrillada eta erromeria eratu dituzte biharko jaialdirako, arratsaldean hasita

Elorrioko Portalekua herriko tabernak hamar urte bete ditu aurten, eta bihar ospatuko dute urtemugako jaialdi nagusia. Aurretik beste ekintza batzuk ere egin dituzte; perretxiko bilketa eta erakusketa, esate baterako.

Arratsaldeko 17:00etan preso politikoaren inguruan eratu den ekitaldiagaz bat egingo dute, Arriolara joanez. Gero, 18:30ean,

kantuz kantu ibiliko dira kaleetan, bakarleri baten musikak lagundurik. Iluntzeko 20:00etan dute afaltzeko hitzordua, parilladan elkartuta.

Errormeria

Afalostean erromeriagaz jarraituko dute festa egiten; Goxo-Goxo taldeak girotuta amaituko dute urteurren iaia. ■ M.O.

> GARAI

Olentzeroren etorrera ospatuko dute hilaren 24an

Garaiko Udalak Olentzeroren etorrera ospatzera deitu du datorren zapatuan, egun osoko egitarauagaz. Abesteaz gainera, bazkaria ere egingo dutela azaldu dute.

Goizeko 10:30ean ipini dute irteera ordua, udaletxe aurrean,

auzoetara abesten joateko. Ibilal-
diaren ondoren, bazkaltzera joan-
go dira abesten jardun duten guz-
tiak, Otea Loran elkartera. Olen-
tzeroren inguruko ekitaldiek
arratsaldean jarraituko dute; kasu
horretan, herrigunean ibiliko dira
kantariak.

Sukaldaritzan murgilduta

Astelehenean hasi zuten sukaldaritza ikastaroa, 17 parte-hartzaileraz. Gabonetako platerak prestatzen ikasiko dute Juan txu Larru-zearen eskutik. ■ M.O.



Euskaditik Europara EHU-tik Lanera

50 BEKA



Helmugak

1

Herrialdea aukeratu

1 ALEMANIA

2 AUSTRIA

3 TXEKIAR ERREP.

4 ITALIA

5 PORTUGAL ERRESUMA

6 BATUA

PRAKTIKAK EUROPLAN.

EPEZ PROIEKTUKO VI DEIALDIA

Norentzat:
UPV/EHUko titulatu berriak
direnentzat.

Beharrezkoa da 30 urte
baino gazteagoa izatea eta
Bizkaian erroldatua egotea.

Beka-kopurua: 50

Herrialdeak: Alemania, Austria,
Erresuma Batua, Txekiar Errep.,
Italia eta Portugal

Eskaera-orriak
eskuratzeko lekuak:
Bizkaiko Campuseko
Enplegu gunean edo
www.ehu.es/enplegugunea
web gunean



2
Harri zure hartola

informazio gehiago

UPV/EHU
enplegubizkaia@ehu.es
 Tel.: 94 601 36 79 / 94 601 36 81

Durangaldeko Behargintza
orientazio.mdurango@bizkaia.org
 Tel.: 94 623 25 22

Getxolan
www.getxo.net/getxolan
 Tel.: 94 466 01 40

Izena emateko epea:
2011ko azaroaren 29tik
abenduaren 21a arte, biak barne

GIZARTE EKINTZA





UPV/EHU

UPV/EHU

EUSKADIA

DIURRETA

Landa inguruko 164 baserri seinaleztatu ditu udalak

Baserrien izen historikoak “baliogarri egitea eta mantentzea” gura dute

Landa ingurunekeo seinalizazioa amaitu dute oraintsu: guztira, 146 baserri seinaleztatu dituzte, eta 30.000 euroko aurrekontuagaz. Landa-gune sakabanatuek osatzen dute herria, zati handi batean. Baserri talde txikietan eta banakako baserrietan, foru errepideetatik aurrera antolatutako bide-sare batek lotzen ditu, eta gehienak ibilgailuen erabilerarako daude egokituta. Horretara,

Zurezko 96 zutoin ez eze lau horma erabili dituzte, guztira 146 baserri izendatuz

erabiltzaile eta zerbitzu emaileei kokapena erraztea eta baserri bakoitza bere toponimoagaz identifikatzea da helburua. Eraberean, baserrien izendapen historikoa

“baliogarri bihurtu eta mantendu” gura dituzte, azaldu dutenez. Baserri kopuruaren arabera Baserrien inguruan eta bidegurutze estrategikoetan 96 zurezko zutoin jarri dituzte: 89 hormigoizko zapatagaz eta zazpi zoladuran; beste lau horman jarri dituzte, zutoinik barik. Toponimo bakarreko 74 jarri dituzte, bikoak 28, hiru-ko 4 eta lau-ko bat. ■ A.B.



Iurretako auzoetan zehar dabilenak seinale hauei esker jakingo du bertako baserrien berri.

ZALDIBAR

Auzo-batzarren lehenengo erronda amaitu dute asteen

Udalak bultzaturiko parte-hartze dinamikaren baitan, auzo-batzarren lehen fasea amaitu da asteen. Martitzenean Goierri, Gazaga, Urizar eta Arangurengo auzotarrak egin zieten batzartzeko deia, eta atzo herrigunekoiei.

Martitzenean 19 auzotar batu ziren, saneamendua eta ura lako gaiak aztertzeko

Kotxeen abiadura dela-eta, sakanguneak jartzea eskatu zuten auzotarrek

Martitzeneko bilkuran 19 auzotar batu ziren, Bilduko sei zinegotziak eta EAJko zein PPko ordezkari banaz gainera. Ura eta saneamendua lako gaiak aztertu zituzten, auzo batzuetan arazo edo gabeziak daudelako. Kotxeen abiadura dela-eta sakanguneak jartzea eskatu zuten, baita basoak eta arekak garbitzea ere. Autopista garbitzeko produktuak errekaraz jausten direla-eta, kezka azaldu zuten. ■ M.O.

OTXANDIO

Aurrekontuen zirriborroa herritarrei aurkeztuko diete

Otxandioko Udalak 2012ko udal aurrekontuen eta egitasmoen aurkezpenera egingo du datorren abenduaren 20an. Bertan, datorren urtean udal batzorde bakoitzaren helburu eta proiektu nagusi bakoitzaren azalpen guztiak emango dituzte; zeintzuk diren helburu nagusiak, zer diru atal bideratuko duten proiektu bakoitzerako... Herritar guztiei zabalik egingo den aurkezpenera kultur etxean egingo dute, 19:00etatik aurrera.

Abenduaren 20an egingo dute aurrekontuen aurkezpenera, 19:00etan Otxandioko Kultur Etxean

Behin abenduaren 20ko martitzenean udal aurrekontu eta proiektuak azalduta, gutxi gorabehera hilabete bateko tarte zabalduko du udalak, herritarren proposamen eta iritzia jasotzeko. Aurrekontuen proposamena webgunean eskuragarri egongo da, eta gura duena idaletxetik ere pasatu daiteke zirriborroa jasotzera. ■ J.D.

LANERAKO FORMAKUNTZA IKASTAROAK

PROFESIONALITASUN AGIRIAK

Olaburu 19 - 48215 Iurreta

Tel.: 94 466 88 00

Faxa: 94 620 28 28

ezarautua@iurreta-institutua.net

	LANBIDE KOD.	ARLOA	IKASTAROAK	MAILA	DATAK	ORDUAK	EGOERA
1	UF 0336	ADMINISTRATIBOA	Finantza sistemen eta kalkulu prozeduren analisisa	3		40	ATZERATUTA
2	UF 0515	ADMINISTRATIBOA	Kontabilitateko plan orokorra	3	2012/02/27-2012/04/24	90	
3	UF 0516	ADMINISTRATIBOA	Kontabilitate aplikazio informatikoak	3	2012/05/07-2012/05/22	30	
4	UF 0343	ADMINISTRATIBOA	Soldata ordainsariak, kotizazioak eta diru-sarrerak	3	2012/03/12-2012/05/17	90	
5	UF 0344	ADMINISTRATIBOA	Giza baliabideen kudeaketarako aplikazio informatikoak	3	2012/05/21-2012/06/05	30	
6	UF 0320	ADMINISTRATIBOA	Testu-tratamendurako aplikazio informatikoak	3	2011/11/03-2011/11/21	30	EMANDA
7	UF 0321	ADMINISTRATIBOA	Kalkulu orrien aplikazio informatikoak	3	2011/11/22-2011/12/22	50	EMANDA
8		AUTOMOZIOA	Aire-giroitze sistemen mantenua (On-line + presentziala)	2	2012/01/09-2012/02/13	40	BETETA
9		AUTOMOZIOA	Aire-giroitze sistemen mantenua (On-line + presentziala)	2	2012/01/11-2012/02/15	40	BETETA
10		AUTOMOZIOA	Kalteen balorazioa (KK)	2	2012/02/01-2012/02/29	8	
11		AUTOMOZIOA	Prestakuntza komertziala eta bezeroarentzako arreta (KK)	2	2012/03/19-2012/03/30	8	BETETA
12		AUTOMOZIOA	Automobilen banaketa-uhala (KK)	2	2012/02/01-2012/02/29	24	
13		AUTOMOZIOA	Automobilen eskema elektrikoak (KK)	2	2012/01/09-2012/01/31	24	
14	UF 0876	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Txirbil-harroketak bidezko mekanizazio prozeduren zehaztapen teknikoak	2	2011/11/02-2011/11/30	60	EMANDA
15	UF 0991	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Txirbil-harroketak bidezko mekanizazio prozeduren kostu kalkulua	2	2011/12/01-2011/12/22	40	EMANDA
16	UF 0878	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Tresnak, ekipak eta makinak prestaketa	2	2012/01/09-2012/02/09	80	
17	UF 0881	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Txirbil-harroketak bidezko mekanizazio prozedurak	2	2012/02/13-2012/03/15	80	
18	UF 0879	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Txirbil-harroketak bidezko piezen fabrikaziorako CNC programen sorkuntza	2	2012/03/19-2012/05/08	80	
19	UF 0880	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Txirbil-harroketak bidezko prozesu laguntzaileen fabrikazioa (pneumatika)	2	2012/01/10-2012/02/16	70	
20		INFORMATIKA	Web orrialdeen sorkuntza (KK)	2	2012/03/01-2012/03/30	30	
21		INFORMATIKA	Eskola 2.0. Ubuntu sistema eragilea (KK)	2	2012/04/02-2012/04/30	30	
22	UF 0538	ELEKTRONIKA	Behe-tentsioko instalazio elektrikoek ekipa eta elementuen montaia	1	2012/01/09-2012/02/29	80	
23		ELEKTRONIKA	Automatismo elektrikoak (KK)	2	2012/03/01-2012/03/30	24	
24	UF 0120	ARRETA SOZIOSANITARIOA	Elikagaien eta tratamenduen banaketa menpeko pertsonen etxeetan	2	2012/03/12-2012/04/26	50	BETETA
25		ARRETA SOZIOSANITARIOA	Zaintzailea zaindu (KK)	2	2012/02/06-2012/02/17	22	BETETA
26		ARRETA SOZIOSANITARIOA	Zaintzailea zaindu (KK)	2	2012/04/03-2012/05/10	22	
27		GOI MAILA	Goi mailarako sarrera frogak	2	2011/10/03-2012/05/30	180	EMATEN

www.iurreta-institutua.net

Tel.: 94 466 88 00

Durangaldean labor

Nerea Mandalunizek irabazi du Berbalagunen lehiaketa

Berbalagun ekimenaren barruan egindako lehiaketan 245 bat lagunek parte hartu dute, eta 13 izan dira 16 galderak asmatu dituztenak. Euren artean egindako zozketan Nerea Mandaluniz abadiñarra izan da irabazle. Durangaldeari zein euskarari buruzko jakintza hartu dute aintzat, "Zein da Durangoko elizarik zaharrena?" edo "Zelan esaten zaio *erbinudeari* Durangaldean?" moduko galderekin.

Más Curvas-ek jostailu eta janaria batuko ditu

Mas Curvas motorzaleen elkarteak VI. Gabonetako Motor-ibilbidea antolatu du zapatuan. 16:00etan, inguruetak herrietan ibilbidea egingo dute. 18:00etan bueltatuko dira Mas Curvasen lokalera, eta parte-hartzaileek txokolate beroazain izango dute. Ondoren, janaria eta jostailuak batuko dituzte beharrean daudenei dohaintzan emateko.

Liburuan batu dituzte hamar BTT ibilbide

Durangoko Turismo Bulegoak, Frai Juan Zumarraga institutuko ikasle talde baten ekimenez, BTT zaleentzako hamar ibilbidez osatutako liburua argitaratu du. Abuztuan www.durango-udala.net/turismo gunean ikusgai ipini zituzten; orain paperean ere eskuragarri daude.

Gabonetako hiru orein desagertu dira

Durangoko Udalak salatu duenez, Azoka egunetan "ekintza bandalikoak" ere izan dira; esaterako, bi kontainer erre dituzte eta 9 zaka-rrontzi hautsi, 6.789,20 euroko kostua eragin dutelarik. Horrez gainera, Gabonetako 3 orein zuri desagertu dira Durangoko errotondetatik.

ATXONDO

Hirigintza Plana Agenda 21en berbagai

Bi hileren buruan onartuko dute testua udalbatzan

Datorren urterako hainbat egitasmo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren menpe daude. Atxondoko hirigintzan egongo diren aldaketak izan

Industriagune berria hasieran pentsatu zuten baino hurrago egongo da errepidetik



Taldeka batu ziren foroan, proposamenak aztertzeke.

dira Agenda 21eko azken foroko arduetako batzuk. Plana hile bi barru plenoan onartzekotan dira, eta zer aldaketa egin diren jakin gura izan dute herritarrek.

Industriagune berria, horrenbeste itxarondako Irubideko biribilgunea... hainbat egitasmo daude Hirigintza Planaren onarpenaren menpe.

Azken aldaketan artean, industriagunearen kokapena dago. Hasierako proposamenen baino sartalderago, Abadiño alde- ra, birkalifikatuko dituzte lurak; errepidetik gertuago, Artiako poligonoaren parera. Aldaketagaz, "ingurugiroari eta auzokideei kalte txikiagoa" egingo zaiela adierazi dute udal arduradunek.

Plana onartu arte itxaron beharko da Irubideko biribilgunea egiteko

Planaren azken ikutuak egin eta bi hile barru gura dute pleno- ra eroan. Gero Aldundiak onartu beharko du testua, eta hango zere- ginek zazpi bat hile iraungo dute- la diote udal arduradunek. ■ A.U.

Bidegorrian 25 metro hesi ostu dute San Roken

Ermita ondoan dagoen zubian izan da lapurreta



Foru Aldundiaren esku dago hesi berriak ipintzea.

San Roke ermitaren ondoko zubi- ko hesia lapurtu dute joan den astean, eguenetik barikurako gauean. Bertan zegoen metalez- ko hesiaren zati handi bat eraman dute lapurrek; guztira, 25 metro. Bidegorria Foru Aldundiarena da, eta Aldundira bertara idatzia aur-

keztu dute orain, hesia berriro ipi- ni dezaten.

Beste lapurreta batzuk ere izan dira Atxondon azken asteo- tan. Axpen errepidetik arketa bi ostu zituzten, bidegorriko lapu- rretaren gau berean. Dagoeneko ipini dituzte arketa berriak. ■ A.U.

BERRIZ

Musika Etxea, 2012 hasierarako lanean

Eraikinaren obra amaituta, udala eta musika taldeen arteko hitzarmena lantzea falta da orain

Musika Etxeko lanak, praktikan, amaituta daude dagoeneko, eta 2012 urte hasieran zabalik egotea da Berrizko Udalaren asmoa, Roland Isoird alkateak adierazi digunez. "Data zehatzik ezin dugu eman, baina baliteke urtarilerako prest egotea" dio alkateak. Uda- lak eta musika taldeen elkarteak hitzarmena adostu beharko dute- la dio alkateak, Musika Etxearen funtzionamenduari begira.

"Hitzarmena aztertu eta proposamenak egitea" dute helburu aurrerantz

Udala hitzarmen hori lantzen dabil, eta musika taldeetako kideak elkarteak eratzeko azkeneko urra- tsetan dabil, Isoirden esanetan. Beraz, alde biak elkartzen dire- nean, "hitzarmena aztertu eta pro- posamenak egitea" dute helburu.

Hori lotu eta sinatu ondoren ipi- niko lukete martxan azpiegitura berria, alkateak azaldu duenez.

Musika Etxearen proiektua musikari- en iritzia jasota egitura- tu zuten, duela urte biren bueltan. Entseatzeko lau gela eta tresnak gordetzeko kutxatategiak egoki- tu dituzte; intsonorizazioa ere lor- tu gura izan dute diseinuan. 332.000 euroko aurrekontua bide- ratu dute egitasmoa egikaritzeko.

Diru-laguntzaren zain

Hasieran, amaituta dagoen proiektua udaleko diruagaz aurrera ate- ratzea zehaztu zuten 2011rako udal aurrekontuetan. Orain, bai- na, diru-laguntza bat eskatzeko aukera izan dute, eta erantzuna- ren zain daude. Alkateak dioenez, ez da ziurra diru-laguntza jasotzea, baina horrela balitz egitasmoaren kostu osoaren portzentaia handi bat kubrituko luke: "%70ekoa, behar bada". ■ M. Onaindia.

Bizkaia Kirolak saria jaso du Aldundiaren eskutik udalak

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia Kirolak saria eman dio Berrizko Udalari, "udalerrian kirolaren alde egindako lanagatik", toki administrazio-ko entitateen alo- rrean, hain zuzen ere. Roland Isoird alkateak jaso zuen saria atzo, Jose Luis Bilbaoren eskutik.

Toki administrazio-ko entitateen alorrean irabazi du saria Berrizko Udalak

Gaur egun Berrizko Udalak hamar bat kirol instalazio kudea- tzen ditu, eta Durangaldeko belo- dromoa ere Berrizen dago. Berrizburun, bestetik, herri-kiro- len parkea prestatzen dabil. Kirol elkarte kopurua handia da, eta 800 abonatu daude instala- zioetan. Gainera, ikasturte berri- rako *Igandetan* ere ekimena mar- txan ipiniko dute gimnasioan, urtarilaren 15ean eta 29an, pro- ba modura. ■ M.O.

ABADIÑO

Doluari buruz jardungo dute asteleheneko berbaldian

Udalak lagunduta eta Anboto Azpiko Damak emakume elkar- teak antolatuta, doluari buruz- ko berbaldia izango da abendu- ren 19an. Doluari zelan aurre egin jorratuko dute *Aulki huts bat* izenburuko hitzaldian, 18:30ean hasita, Errota kultur etxean.

Maite den pertsona baten heriotzak eragindako sentipe- nak datozenak lako eguberri egu- netan zelan kudeatu aztertuko dute, horretan diharduen Krisa- lida elkartearen laguntzagaz.

Maite den pertsona baten heriotzak eragindako sentipenak zelan kudeatu jorratuko dute berbaldian

Itziar Gandia eta Ainara Martínez Etxaburuk eskainiko dute Errota kultur etxean izango den berbaldia. Abadiño-ko Uda- laren lankidetzaz antolatu du Anboto Azpiko Damak emaku- me elkarteak hitzordua. ■ I.E.

MALLABIA

Ordenantza fiskalak %2 igotzea adostu dute, aho batez

Mallabiko Udalak datorren urte- rako ordenantza fiskalak onartu ditu. Urriaren 24an egindako ezohiko udal osoko bilkuran, aho batez hartu zuten erabakia. Tasak, orokorrean, %2 igoko dituzte 2012an. Zaborra %5 igoko dute, "Debabarreneko Mankomuni- tateakigoera hori aurreikusidue- lako", Mila Mondragon alkateak azaldu duenez. Ibilgailuen zer- ga ere %2 igo dute.

Zaborra %5 igoko dute, Debabarreneko Mankomunikategaz bat

Kiroldegiko tasak ere igo egingo dituzte herritar guztien- tzat, etaigoera hori nabarmena- goa izango da Mallabian bertan erroldatuta ez daudenen kasuan. Hala ere, urteko kuotaz aparte, sei hilabeteko kuota ordaintze- ko aukera eskainiko dute hemen- dik aurrera. ■ J.G.

“GAURSAAn erositako ibilgailua benetako kide bat bezala izango da zuretzat.

Eta hitza betetzen ez badut, ni arduratuko naiz urte guztian zehar goiz jaiki eta zure negozioarako erosketak egiteaz.”

Andonik esana



Andoni Baños,
Gausako Aukerako
Ibilgailuen Arduraduna

**RENAULT
OCASIÓN**

GAURSA AUTOAK

ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA.
GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO.

www.gausaautoak.com



BERBAZ>

“Lan munduan euskara maila bat eskatzea normalizazioaren seinale da”

Durangoko Udal Euskaltegiaren inguruan hainbat lagun batu zen atzo 25.urteurrena ospatzeko ekitaldian



Maite Euba •

- Zornotzarra da
- Orain dela 23 urtetik dabil euskaltegian beharrean

“Etorkizunean klase presentzialak eta onlinekoak uztartu beharko dira”

ra begirako formulak asmatu ahal izateko.

Lehenago jendeak ez zuen lan mundurako euskararik behar... Eta orain lanerako euskara eskatzea normalizaziorantz goazen seinale da. Lanagatik euskara ikasten bazabiltza, zure lan esparrua normalizatu egingo da, eta zure zerbitzua euskaraz eskaini ahalko didazu niri. Hortik aurrera, zure bizitzan zer egingo duzun, hori zure esku dago, baina niretzat, nire normalizaziorako garrantzitsua da zuk lanean euskaraz funtzionatzea. Horra heltzen gabiltzala uste dut.

Zelan irudikatzen duzu euskaltegia 10 urte barru?

Teknologia aldetik asko hobetu dugu, eta ematen du aurrerantzean asko komunikatu garela ordenagailuz. Klase presentzialak eta onlinekoak konbinatu beharko dira aurrerantzean ere. Hori teknologiari begira, eta bestela, erabilerari begira salto handia egin behar dela uste dut. 30 urte pasatu dira euskalduntze premia somatu zenetik. Ezagutzen asko aurreratu da, hezkuntza arloan egindako lanagatik, baina erabileran eta trebakuntzan egiteko asko dago. Jende asko ez da gai sentitzen lanean euskara erabiltzeko, eta *Berbalagun* lako egitasmoen laguntza behar du ikasle askok. ■ A.Ugalde

Lehenago ikastaro trinkoagoak; orain laburragoak eta ordenagailuaren laguntzagaz... 25 urte daramatza zabalik Durangoko Udal Euskaltegiak, herri-tarrak euskalduntzen eta euskaraz trebatzen. Euskaltegiko zuzendari Maite Eubagaz urte horien errepaso egin ahal izan dugu.

Sortu eta gutxira hasi zinen Durangoko Udal Euskaltegian beharrean. Zelan gogoratzen duzu orduko giroa?

Euskaltegia zabaldu zute-nean ni ordezeko lantxo bat egiten nenbilen Zornotzako euskaltegian, eta pentsatu zelan aldatu diren denborak: orduko hemengo zuzendaria grabazioak egitera joaten zen Zornotzara, ikas-material moduan ibiltzeko. Gaur egungo erraztasunik, alde horretatik, ez zegoen. Orain baino ikasle gehiago zegoen. Akordatzeko naiz Jesuitetan ere ematen genituela eskolak iluntze batzuetan; euskaltegi alboko beste gela batzuk ere erabili genituen... Jende gazteagoa zebilen. Geu ere gaz-

teagoak ginen, eta ikasleak ere gazteagoak ziren.

Asko aldatu da ikasleen profila? Guztiz desberdina da. Gaur egungo ikasle ia gehienak 35 urtetik gorakoak dira, asko ikasketadunak, eta emakumeak etortzen dira batez ere. Beharrerako tituluen bila etortzen dira gehienak; EGA edo hizkuntza eskakizunen bat. Lehen euskalduntzearen helburu nagusia, eta orain hizkuntza hobetzea da.

“Interesgarria izango litzateke HABEK etorkinentzako egitasmoak diruz gehiago laguntzea”

Etorkinake euskalduntzen ere egiten da beharra.

Bai, baina euren lehentasunak beste batzuk dira. HABEko ohiko modulua astean hamar ordukoa da, eta gaitza da etorkinak etortzea, beste premia batzuekin dabilatzala-

“Argi daukagu gu ez garela akademia bat; gure lana ez da ikasleak euskalduntzera bakarrik mugatzen”

ko, eta ez dutelako denborarik izaten. Alde horretatik, *Aisa* izeneko modulu labur eta bereziak eskaini izan ditugu, AEKgaz batera. Bide interesgarriak jorratu ditza-kegu horretan, HABEko horrelako proiektuak diruz laguntzea erabakitzen badu bere plan estrategiko berrian.

Euskara ikasteko orduan, militantziak pisu handia zuen lehenago. Gaur egun ere bai?

Guk argi daukagu ez garela akademia bat, eta gure lana ez dela euskalduntzera mugatzen; normalizatzea ere bada: zabalitzea, sentsibilizatzea... eta ahalegintzen gara hainbat ekintza antolatzen, antzerkira joaten; *Euskarak 365 egun* lako kanpainetan parte hartzen... Herri mailan egiten diren normalizaziorako ekintza guztietan parte hartzera animatzen dugu. Behintzat, ezin gara egon

lehenago malenkoliak gogoratzen. Motibazio printzipala profila ateratzea izango da, eta hori ezin duzu ukatu, baina ahalegintzen gara bestelako sentimendu horietara hurbiltzen, eta hori lortzeak poza ematen du.

Ilusio hori ez galtzea garrantzitsua izango da, beraz.

Urteurren jaialdian atzera begiratu dugu, lehenagoko argazkiak erakutsiz, baina hori aurrera egiteko tranpolina da. Ilusioa uste dut lehenago bestekoa edo handiagoa daukagula, eta ez da erraza hori esaten. Egiteko hainbat gauza daude, eta zelan egin pentsatzea erronka da guretzat. Horretarako, lantalde ona daukagu; esperientzia handikoa. Ikusi dugu motibazioa, behar bada, ez dela guk nahiko gure keena, baina urteotan ikasitakoak asko balio digu aurre-

@anbotokultura

KULTURA[>]

IKUSKIZUNA > ARRIOLAN



Artea ere gozagai eskaintzen duen ardo dastaketa Arriolan

Abenduaren 29an, 18:00etan euskaraz eta 20:00etan ele bitan, Durangaldeko hainbat sortzaile eta Mikel Garaizabal enologo elorriarra batzen dituen 'Hordago ardoa' eskainiko dute Elorrioko Arriolan

Udaberrian egin zuten "arteaz jantzi-tako ardo dastaketa" lehenengoz, Herri Urratsen aldeko jaialdian, Durangoko Plateruenean. Hainbat arlotan diharduten sortzaileak, ikusleak eta Mikel Garaizabal enologo eta sumillerra ardoaren bueltan biltzen dira saioan. Abenduaren 29an, 18:00etan euskaraz eta 20:00etan ele bitan eskainiko dute Elorrioko Arriolan.

Herri Urratsen alde udaberrian Plateruenean eginiko jaialdian aurkeztu zuten ikuskizuna

Ardo dastaketa arrunten bidetik ateratzea dute sortzaileek helburu, ohiko ardo dastaketen formatua aberasteko: Ander Garaizabalek musikagaz, Peru Magdalenak poesiagaz, Sonia Villamorrek antzezpenagaz eta Gotzon Garaizabalek margoagaz girotzen dute ardo dastaketa.

"Bakoitzak egiten dakiena koktelera batean sartu, eragin eta ardo dastaketa artistiko hau ateraz", kontatu digu Mikel Garaizabal enologoak: "Organoekin zerbait

aztertzea da dastaketa", dio Garaizabalek, "eta organo horiei musikaren, poesiaren, margoaren edo antzerkiaren bitartez beste gozamen batzuk gehituta, bikoiztu egiten da disfrute hori".

Ikusle kopuru mugatua dauka urte amaierako Elorrioko emanaldiak, eta Arriola antzokiko 946583192 telefonoan eman daiteke izena. Arriola antzokiaren webgunean ikusgai ipini dute, gainera, *Hordago ardoa* ikuskizunaren aurkezpen bideoa.

Elorriokoaren ondoren, besteak beste, Bilboko Pabellon N° 6 aretoan eskainiko dute arteaz jantzi-tako ardo dastaketa hau, eta datorren urtean proiektua atzerrian ere erakusteko asmoa daukate.

Hamabost urte daramatza, zehaztu digunez, ardo dastaketak burutzen Mikel Garaizabalek: seiehundik gora dastaketa burutu ditu Euskal Herrian, Espainian eta beste herrialde batzuetan.

Emanaldi bakoitza bakar egiten dute Garaizabalek eta ardo dastaketa berezi hau egiteko batu zaizkion sortzaileak. Dastaketa hutsetik harago doan esperientzia da *Hordago ardoa*, parte-hartzaileek bost ardo dastatuko dituzten arren. Enologoak ardo bakoitzaren ezaugarrien berri ematen duen

M. Garaizabal: "Ardo dastaketa hutsetik harago doan esperientzia da Hordago ardoa"

bitartean, artistek euren adierazpideagaz interpretatuko dute ardo bakoitza: abeslariak zuzenean kantatu eta dj lana burutuko du, margolariak ardoaren arabera egingo ditu muralak, eta aktoreek eta poetak ere emanaldi bakoitzerako apropos presaturiko lanak eskainiko dituzte.

Ardoa ez dela jende nagusi eta serioarentzako bakarrik gura dute proiektuaren parte diren sortzaileek erakutsi: gozame-na dela ardoa. Garaizabalen berbetan, ardoaren mundua gazteei gerturatzea da formatu honen helburuetako bat.

Bakarra da emanaldi bakoitza: *Hordago ardoa* ikuskizuneko margoa berezia da emanaldi bakoitzean, eta emanaldiaren arabera zein dastaketako publikoaren arabera, olerki bat erabiliko du poetak. Artista bakoitzak poesiagaz, margoagaz edo musikagaz adieraziko du ardo bakoitzaren interpretazioa. ■ I. Esteban

Bost ardo, hiruna olerki eta kanta eta pintura dira osagaiak

Bost ardo dastatuko dituzte abenduaren 29ko Elorrioko Arriolako hitzordura gerturatzen direnek: txakolin zuriagaz hasi eta aktorearen istorioak tartekatuta ardo beltzagaz amaitzeko.

Ardoaren negarra kantagaz zabalduko du Logela Multimedia taldeko Ander Garaizabalek emanaldia, eta musika, antzerkia, poesia eta pintura uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko dute.

Margolarien lana hartuko duen muralaren atzealdetik arituko dira artis-

tak, eta aurretik gidatuko du ardo dastaketa enologoak: bideo proiektzioa, kantak, ardoari buruzko azalpen arin eta pedagogikoak, eta ardoa dastatzen duten bitartean artistek sorturiko margoak izango dira emanaldiaren osagai.

Sesioaren 50 minutuen ondoren, bost ardo dastatu, hiru olerkiren errezi-taldia gozatu eta beste horrenbeste kanta entzungo ditu bertaratzen denak, eta hasieran zuri zegoen ohiala kolorez margotuta amaituko da saioa.

BERTSOAK > TXAPELKETA

Iurretako Banderaren Mendeurreneko Batzordeak antolatuta, iurretarren arteko bertso txapelketa burutuko dute, 21:30ean hasita, gaur. Dantzari plazan izango da txapelketako saiorako hitzordua.

Eneko Abasolo "Abarkas", Gorka Lazkano, Peru eta Txomin Magdalena, Ander Salaberria, Markel Onaindia, Ander Duñabeiti, Xabi Olaskoaga, Unai Agorria, eta Kristina Mardaras arituko dira bertsoan.

Saioa hasi orduko osatuko dituzten talde bitan lehiatuko dira Iurretako bertso eskolan jardundako bertsolariok: talde banaren buru ipiniko dituzte Eneko Abasolo "Abarkas" eta Gorka Lazkano, eta par-

Iurretako Banderaren

Mendeurreneko Batzordeak

antolatu du gaurko hitzordua

Bertso eskolako hamar bertsolari taldekako lehian

Gaurburutuko dute txapelketa, 19:00etan Iurretako Dantzari plazan

te hartuko duten beste zortzi bertsolari-kin osatuko dituzte talde biak.

Jon Jaio, Asier Ibaibarriaga eta Izaskun Ellakuriagak jardungo dute txapelketako epaile lanetan, eta Justo Alberdi izango da idazkaria. Gai-jartzaile Asier Ibaibarriagak jardungo du; Ibaibarriagaz batera, Jon Mariela, Gorka Ingunza eta Koldo Zarate aritu dira gai-jartzaile taldean.

Iurretako Dantzari plazan ipiniko duten karpa batean atonduko dute saiorako eszenatokia, eta orain urte bi legez, bertatik jardungo dute bertsolariak.

Hamar urtean bakarkako txapelketa antolatu eta urte batzuetan herriko bertsolarien hitzordua burutu barik egon eta gero, taldekako txapelketa legez antolatu dute azken urteotan Iurretako bertso eskolan jardundako txapelketa.

Abadiñoko lehiaketa

Abadiñoko Gogaikarri bertso eskolako II. Koi-pelustre Kopla Jarri Sariketan izena emateko epea zabaldu du. Informazio gehiago www.blogak.com/gogaikarri helbidean aurkitu daiteke. ■ I.E.

IKUSENTZUNEZKOAK > LEHIAKETA

Sara Muruaren 'Aisialdirako aukerak' bideoa saridun

Durangoko Azokako azken egunean egin zuten sari banaketa ekitaldia



Gerediaga elkarteak antolaturikoa da Durangaldeko ikastetxeetako ikasleei (13-17 urte) zuzenduriko ikus-entzunezko laburren *Durangaldea Bizi* lehiaketa. Durangoko Liburu eta Disko Azokaren azkeneko egunean burutu zuten lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, eta *Aisialdirako aukerak* lana aurkeztu zuen Sara Murua gazteak jaso zuen sari nagusia.

Hiru minutuko bideoa aurkeztu behar izan dute gaztetxoek, eta, guztira, 12 jaso ditu lehiaketa antolatu duen Gerediaga

elkarteak. Eroski Bidaia-ek eskainitako abentura ekintza sorta jaso zuen Muruak saritzat, eta *pen-drive* bana lehiaketar lanean bat aurkeztu duten guztiek.

Bigarren urtez antolatu du ikus-entzunezkoen lehiaketa Gerediaga elkarteak, eta 'Ondare gaztea' izan da gaia.

"Gazteek Durangaldea ezagutzea eta Durangaldea zer ikuspegi duten jakin eta plazaratzea da", Gerediaga elkarteak azpimarratu duenez, *Durangaldea Bizi* lehiaketaren helburu nagusia. ■ I.E.

MUSIKA > EMANALDIA

Xaramel taldea, Oskorrigaz Bilbon hilaren 21ean eta Plateruenean 29an

Santo Tomas egunean, abenduaren 21ean, Oskorrik urtero Bilbon gidatzen duen kantu emanaldian parte hartzeko gonbita jaso du Durangoko Xaramel taldeak.

Urtea amaitu aurretik, Bilbokoaren ondoren, Durangon ere emanaldia daukate Xaramel taldeko gazte durangarrek. Abenduaren 29an euskal kantuen emanaldia eskainiko dute Durangoko Plateruenean, 20:00etan hasita. Doakoa izango da Haur Kantarien Platerueneko emanaldi horretarako sarrera.

Euskal Herriko Haur Kantari
Txapelketaren bigarren saria
jaso zuen taldeak ekainean

Urte betea izan dute Xaramel taldeko kantari gazteek 2011ko hau; Nafarroa, Gipuzkoa, Baxe-Nafarroa, Araba, Bizkaia, Lapurdi eta Zuberoako haur eta gaztetxoek parte hartu zuten Euskal Herriko Haur Kantari txapelketaren finaleko bigarren sariagaz bueltatu ziren Hazparnetik etxera, besteak beste, ekainean.

Xabier Leteren *Xalbadarren heriotzean* eskaini zuten Xaramel taldekoek, pianoak lagunduta, eta epaimahaiaren laudorioa jaso zuten. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Fernan
Ruiz,
Berbaroko
kidea



Errogatibak

Geure Durangaldeko errogatibarik eza-gunetakoa abadiñarrek Urkiolako San Antoniori egiten diotena da. Antza, santuari baino lehen Mari Anbotokoari eskatzen zitzaizkion eguraldi ona eta uztza ona; besterik ere bai, seguruenik.

Aurreko Anboton, Jon Anderrek zutabe originala eta polita eskaini zigun. Errosarioa eskuetan irudikatu dut, ale-rik ale, bakoitzean otoi sorta botaz. Umetan, ikusita daukat gure amama Basili antzeko zereginetan. Ez naiz gogoratzen, baina, zer eskatzen zuen eta nori.

"Errogatibak, erromesak...; antzinako kontuak, orain jantzi berriekin" idatzi ditlagun italiarrak. Aurten ezin etorri izan da, baina saretik abiatu da erromes Durangora motxila barik; oinetan minik ez, beraz. Bestelako min batzuen gaineko kontuak aipatu dizkit; abendu hasierako Durangoren handitasun eta txikitutasunaz jardun du. Garrantzi handiko ekimena da euskal kulturarentzat; literatura, musika, sortze-lana agerrarazten baita bertan, dena batera, urteko uztza. Lagun italiarraren iritzian, txikien artean, ez dago munduan gure kulturak egiten duen indar erakustaldia egiten duenik.

Sinesmen kontuak aipatzen ditu, euskal kulturarenganako fededunen bilgune gisa irudikatzen baitu, eta 'Meka' esaten dio. Bizitzan behin, gutxienez, hara joatea baita musulmanentzat fedearen oinarrietako bat. Euskaltzaleen hiri santua bilakatzen ari da Durango, eta geure buruei fededun garela baieztatzeko ezinbestean erromesaldia dugu, ahal dela urtero. Han topatuko baititugu gure idolo gurgarriak, eta zortea badugu, haiekin berba egiteko parada ere izan.

Urterik urte berrikuntzak ikus ditza-kegu, sortzaileen gunea da aipagarriena, baina italiarrak gero eta merkatuagorik ikusten du abendu hasierako topalekua. Eta jartzen dugun indar guztia jarrita ere, berak ez dio antzematen euskarak eta euskal kulturak asko aurreratzen dutenik. Uste du gutako bakoitzarengan dagoela gakoa, agintariengan ez baitauka itxaropenik. Baliteke, eta badaezpada, berehala hasi naiz, egunero, neguko gela hotzetan errosario santua erreztatzen aktibismoa eskatzeko 365+1 egunetan.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

ABENDUAK 18 17:30ean
ANTZOKIKO ISTORIOAK
HAURRENTZEKO IKUSKIZUNA. 3euro

ABENDUAK 22 20:00etan
KANTULAGUN EUSKAL KANTAK
Urteko izen ematea: 15euro

ABENDUAK 23 22:30ean
SU TA GAR + MAFIA
KONTZERTUA. Sarrera: 12-15euro

ABENDUAK 30 22:00etan
URTEKO AZKEN BERTSO SAIOA
Lujanbio, Maia, Colina eta Soto.
Sarrera: 8euro (Berbaroko bazkideak: 5)

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

LEIHOTIK MUNDURA
Kukubiltxo Antzerki Taldea

Abenduak 18 • 18:00
Txikitxartelarekin doan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

ANTZERKIA > EMANALDIA

Txintxaun-en 'The Full Monty' filmaren antzokirako moldaketa

"Hasieratik amaierara arte eszenan hamar antzezle dituen erritmo biziko obra" da bihar, abenduaren 17an, Txintxaun Kolektiboak Berrizko Kultur Etxean estreinatuko duena



Abenduaren 17an Berrizko Kultur Etxean estreinatuko du Txintxaun Kolektiboak taldeak azken urtean prestatzen jardun duen *The Full Monty* antzezlan. Aste hasierarako salduak zeuzkaten sarrera guztiak, eta datozen hileetan beste bitan eskainiko dute: urtarilaren 15ean eta oraindik zehaztu barik daukaten hirugarren emanaldian.

"Su geldoan egositako lana da", azaldu digu obra atontzen diharduen Rosa Martinez-Alcocer zuzendariak. Obra ontzen urtebete daramate, eta "estreinatzeko gogoz" omen daude.

Bizi dugun krisi ekonomiko garai honetarako gai oso aproposari buruzko lana moldatu dute:

"Orain hiru urte inguru, lehenengo lan erregulazio espedienteak, langabezia, etab. hasi ziren Txintxaun-eko taldekideak ere pairatzen", esan digu zuzendariak. "Lana bilatu edo ikasketak berrartu beharrek antzerki taldeak aldentzera eramane zuten batzuk".

"Guztiok hasi ginen langabeziaren errealitate hori gure azalean edo oso gertu bizitzen, eta horrela pentsatu genuen antzerki obra batean arazo horretaz jardutea".

Krisi egoera baten aurrean irtenbide kreatiboa bilatzeari buruzko *The Full Monty* filma antzerkira ekartzea erabaki zuten. Zailtasunak asko izan arren, bizi dugunako egoera batean antzerkia egiten jarraitzen duteneko ondo dakite ametsen bila borrokatzen.

Hamar antzezle hartzen dute *The Full Monty* filmaren Martinez-Alcocerren antzokirako moldaketa honetan parte, eta Nerea Lodosak koreografoaren eta Oihane Leja-

rreta eszenografoaren kolaborazioa eduki dute, besteak beste.

Bideoa, koreografiak, etab. uztartzen dituen ikuskizun "komplexua" da *The Full Monty*: "Ikusleen eta gure imajinarioagaz lortzen dugu zailtasun horiek gainditzea", dio zuzendariak.

Langabeziaren eta prekarietatearen inguruan diharduen obra

"Beti aurrera egitea da Txintxaunen eredu", diosku zuzendariak, eta horretan diraute, bihar-ko antzerki obra baten estreinaldia prestatuz. Azaldu digutenez, taldea autogestionatua izan arren behar dute kanpoko babesa, baina Martinez-Alcocer zuzendariak dienez, "azken hiru urteetan eskasa izan da Berrizko Udalarengandik jaso dugun laguntza". ■ I.E.

MUSIKA > EMANALDIA

Abesbatzen jaialdia abenduko azkeneko asteburuetan Elorrioren

Asteburu honetan eta abenduaren 23an eta 30ean izango dira Kantoria jaialdiko Euskal Herriko bost abesbatzen emanaldiak

Abenduko azkeneko asteburu bitan burutuko dute 'Kantoria' izenagaz antolaturiko abesbatzen jaialdia, Elorrioren. Christina Meissner eta Julia Palaoren biolontxelo kontzertuak zabalduko du jaialdia, gaur 20:00etan, San Anan, eta beste bi emanaldi ere izango dira asteburu honetan.

Durangaldeko abesbatza bik eskainiko dute, besteak beste,

Christina Meissner eta Julia Palaoren biolontxelo kontzertua, hasteko

Durangoko Bogoroditsiek eta herriko Berrio-Otxoak ere jardungo dute

abenduaren 17an eta 18an emanaldia: Durangoko Bogoroditsiegan bara-abesbatzak Arriola antzokian eskainiko ditu bihar, 20:00etan hasita, hastapenetatik ikertzen eta zabaltzen jardun duen autore berrien lanak. Jaialdiko herriko Berrio-Otxoa abesbatzaren eta Leioa eta Mungiako abesbatzen eguna izango da, bes-tetik, domekakoa; Santa Anan jardungo dute, 19:00etan.

Jaialdiaren bigarren asteburuan, Errenteriako Landarbaso eta EAEko hiru herrialdeetako kideek osatzen duten Vocalia taldeak izango dira abesbatzen Elorrioko jaialdian gonbidatuak. Bataz beste, 29 urte dauzkaten 49 abeslarik osatzen dute Landarbaso taldea, eta 25 musikari profesionalek Vocalia. Abenduaren 23an, 20:00etatik aurrera jardungo du Landarbasok Arriola antzokian, eta Elorrioko Basilikan, 30ean, Vocalia taldeak. ■ I.E.

MUSIKA > EMANALDIA

Organo eta tronpeta kontzertua, Arandoño elkartearen eskutik

Abenduaren 18an da hiru kontzertu eskaini dituen zikloaren azkeneko hitzordua: organo eta tronpeta doinuak entzungai

Arandoño kultur elkarteak antolaturikoa da ekainean, irailean eta abenduan Durangora organua oinarri duten kontzertuak ekarriko dituen *Organu Kontzertuak 2011* zikloa.

Abenduaren 18an, domekan da, hiru kontzertuko zikloaren azken hitzordua: Bergaran jaiotako Pedro Guallar organista eta Juan Vicente Codina Valentziako tronpetistak jardungo dute, 19:00etan hasita, Santa Ana elizan. Besteak beste, Telemann,

Haendel edo Ledesmaeren piezak eskainiko dituzte.

Aurten, besteak beste, Roberto Fresco organista eta Schola Antiqua taldea eta Esteban Elizondo organu-jotzailea izan dira ziklo honetan parte hartzen. ■ I.E.

Pedro Guallar organista eta Juan Vicente Codina tronpetista, Santa Anan

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente kapanaga, 9- 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

telepizza
Askatasun etorbidea, 25 - Tel.: 94 621 81 86

goizeko 08:00etatik
gaueko 21:00etara
zabalik
clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria
{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetatorre 2. blokea C beheka - 48200 Durango - 94 681 99 51

momota
t a b e r n a
plateruen plaza, 12 • 48200 durango
tel.: 94 681 10 06



PLATERUENA

2011 ABENDUA - 2012 URTARRILA

17 ZAPATUA



DANTZALDI BILTARIA

AIKO

urteko bazkaria

14:00an. Txartela: 30€

29 EGUENA



KANTALDIA

EUSKAL KANTUAK

20:00an. Sarrera: DOAN

18 DOMEKA



UMEENTZAKO ANTZERKIA

OLGETAN

ANTZOKIKO ISTORIOAK

17:30ean. Sarrera: 3€



30 BARIKUA



BERTSOSAIOA

URTEKO AZKEN BERTSO SAIOA

MAIALEN LUJANBIO

JON MAIA

SUSTRAI COLINA

JULIO SOTO

22:00an. Sarrera: 5€ (Berbarotarrek)-8€



22 EGUENA



SARIBANAKETA

HI ARTISTA HI!

Lehiaketa

18:00ean. Sarrera: DOAN



05 URTARRILA EGUENA



MUSIKAKONTZERTUAK

AUDIENCE "AMERIKANUAK"

22:00an. Sarrera: 8-10€

22 EGUENA



KANTUZALEENTXOKOA

KANTULAGUN

Urte osoko izen ematea: 15€

20:00an.



06 URTARRILA BARIKUA



GAU ELEKTRONIKOA

ACCATONE

PIEK

IKER UNDERGROUND

RUBEN COSTAS

22:00an. Sarrera: 8-10€

23 BARIKUA



MUSIKAKONTZERTUAK

SU TA GAR

+ MAFIA

22:30ean. Sarrera: 12-15€

07 URTARRILA ZAPATUA



MUSIKAKONTZERTUAK

RUPER ORDORIKA

+ JOSEBA IRAZOKI

22:00an. Sarrera: 10-12€

Gabonetan...
herrian legez inon ere ez



Abenduaren 26tik urtarrilaren 8ra Izotz Gunean irristatzeko aukera



ORDUTEGIA

**Egunero: 10:30-13:30 eta
17:00-20:30**

Bariku eta zapatuetan:

Goizez, arratsaldez eta
gauez: 21:30-00:30

Itxita: Urtarrilaren 1ean

PREZIOAK

14 urtetik beherakoak: 5 euro

Helduak: 5,50 euro

Elkarteetako kideak:

4,50 euro

Eguaztenetan (egun

berezia): 3 euro

IKASTAROAK

IRASTARUAK
Abenduak 23-24 / 26-27 /

28-29 / 30-31

Urtarrilak 2-3 / 4-5 / 7-8

$$\text{Overall mean} = 0.71 \pm 0.13$$

Orduak:

4-7 urte artekoak: 13:30-14:30

8-14 artekoak: 14:30-15:30

14 urtetik gorakoak:

15:30-16:30

Izotz pistan bertan eman
daiteke izena. Ahalik eta
arinen egitea gomendatu dute

dea batez ere, baina Gipuzkoatik
eta Arabatik etorritakoak ere asko
dira.

Sarrerak opari

+Dendak merkatarien elkartek izotz pistarako 550 sarrera oparituko ditu, 20 euro baino gehiagoko erosketak egiten dituzten bezeroen artean. Dagoeneko hasi dira bonoak banatzen, eta urte amaierara arte oparituko dituzte. Merkatarien elkarteko komertzio-etan jasotako tiketak +Dendak-en bulegoan aurkeztu beharko dituzte bezeroek, abenduaren 19tik aurrera.

laz ia 6.000 lagun batu zituen Landako Guneko izotz pistak. Aurtengo Gabon bueltan ere hainbat pertsona gerturatuko dira patinatzerara eta patinatzen ikastera; aurten, egun biko ikastaroak ere antolatu dituzte ume, gazte eta nagusientzat.

Aurten zazpigarren aldia izango du Durangoko Landako Erakustazokan atonduko duten Izotz Guneak. Iaz ia 6.000 erabiltzaile izan zituen, eta aurten ere kopuru horietan ibiliko direla uste dute udal ordezkariak.

90.000 euroko aurrekontua duen Izotz Gunea abenduaren 26tik urtarrilaren 8ra egongo da zabalik; domekatik eguenera, goizez zein arratsalde, eta bariku eta zapatuetan gauzez ere bai. Urtarrilaren 1ean itxita egongo da.

Prezioetan ez dute igoerarik egin. 14 urtetik beherakoentzako sarrerak 5 euro balio ditu, eta handik gorakoentzakoak 5,5 euro. Eguaztenak egun bereziak dira, eta 3 eurotan ipini dute sarrera. Eguna dena delako dela ere, sarrera erosita goiz edo arratsal-

Sarrera erosita, goiz
ala arratsalde osoan
patinatzeko aukera
dute erabiltzaileek

laz egin zuten
inkestaren arabera,
bisitarien % 24
kanpotik etortzen da

de osoan patinatzeko aukera edukiko dute erabiltzaileek.

Urtero legez, aurtien ere patinatzen ikasteko ikastaroak eskainiko dituzte. Aste honetan Pinondo Etxean egon da izena emateko aukera, eta Izotz Gunea zabaltzen dutenean bertan ere eman ahalko da izena, baina "hobe da ahalik arinon izena ematea, ikastaroek oso harrera ona izaten dutelako", Ander Gorrotxategi kirol zinegotziaren esanetan. 5 euro balio du ikastaroak.

Ikastaroetarako programatu dituzten egunez gainera, Gorrotxategik azaldu du balitekeela abenduaren 23 eta 24rako ikastaroen eskaintza zabaltzea, beste talde batzuk eratzuz. Ordu tartebereziatan egoten dira ikastaroak, publiko orokorarentzat izotz pista zarratuta dagoenean. Horre-



dendak

Zorionak eta urte berri on!

Asoc. de Comerciantes del Duranguesado - Durangaldeko Dendarien Elkarte

“Dendaz gainera, familia berrientzako topagunea izan gura du Amazulok”

Kotoi organikoz egindako erropak, pardelak, higiene produktuak, jolasak... Denda baino gehiago da Amazulo. Produktu guzti horiek bertan daude, sarreran. Barrurago gela bat atontzen dabilta ikastaroak, hitzaldiak... emateko.

Zelan sortu zen Amazulo zabaltzeko ideia?

Guk gure umeentzako eta guretzako produktu mota hau ez dugu erraz topatu; internetez egin ditugu erosketak. Konturatu gara, gainera, produktu hauek guztiak denda bakar batean batuta oso leku gutxitan daudela. Durangon horrelako denda eta topagune baten beharra sentitzen genuen. Jendeak badaki, adibidez, pardel ekologikoak egon badaudela, baina non lortu? Bila internetez ibiltzeak alperra eman ahal dizu. Denda bat egonda, bertara etorri eta pixkat kuxkuxeatzea errazagoa da.

Ez da denda soila.

Salmentarako dendaz gainera, familia berrientzako topagune bat izatea gura dugu. Dendaren atzealdean txoko bat atontu dugu, eta bertan, besteak beste, titia emateko aukera eman gura dugu; laktantzia talde bat sortu gurako genuke. Haurdunaldia, erditzeostea, laktantzia eta hazkuntza gaien gaineko ikastaroak, tailerrak... eman gura ditugu, eta egutegi bat markatu gura dugu, ekintza puntualak gainera egitarau finko batekin. Gabon ostean hasiko gara horrelako ekintzak antolatzen. Egia esan, gure dendak, espazio hau barik ez dauka zentzurik; denda moduan bakarrik ez genuke zabalduko.

Elkargune baten beharra sentitzen duzue orduan.

Dendaz gainera, aholkularitza leku bat izatea gura dugu, askotan ez delako jakiten nora jo. Bularra ematearen inguruan Durangon badago Esnearen Liga, eta zortea dugu; herri askotan ez dago. Baina hilean behin da, eta justu ez badizu harrapatzen zure umea jaio denean, ezin duzu itxaron hila-bete zure arazoekin. Amazulora edonoiz etor daiteke jendea, eta informazioen bat ez badaukagu, ziurrenik edukiko dugu kontakturen bat lagungarri izan daitekeena.

Gu interneten begira hasi ginen, eta gero jakinmin bereko jendea batzen hasi ginen. Hau denda bat denez eta publikora begira dagoenez, dena errazagoa izatea espero dugu. Denboragaz txoko hau informazio hori topatzeko lekua bihurtzea itxaroten dugu.

Dendako erropak, pardelak, higiene produktuak... kotoi organikoz eginda daude. Zer abantaila dauka kotoi honek?

Kotoi organikoen produkzioak lurraren zikloak errespetatzen ditu, eta ez da pestizidarik ez produktu kimikorik erabiltzen. Hori ingurugirorako eta gure osasunerako ona da. Gainera, pardel eta higiene produktuak ez dute zuritzeko produkturik erabiltzen, ezta kaltegarriak diren



beste produktu batzuk ere. Ikerketek diotenez, produktu kimiko ugari jasotzen ditugula erropen bitartez. Gezurra ematen du, baina horrek ere eragiten du azaleko arazo eta alergiatan. Higiene produktuetan ere aldea dago, zuritzeko produkturik ez daukatelako. Umeek batzutan ohiko pardelekin oso kaltetuta izaten dute azala, eta negar egiterakoan ez dakizu zehazki horrek zenbateraino molestatzen dien.

Jostailu bereziak daukazue.

Gaur egun eskaintzen den jostailuetan dena da plastikoa, argiak, soinuak... Estimulo larregi umeentzat. Hemen egurrezko materialak, eta forma gutxiak daukagu. Irudimena lan-

“Internetez erosi izan ditugu horrelako produktuak; oso denda gutxitan daude”

“Guraso berriei informazioa eta aholkularitza eskaini gura diegu”

tzeko aukera ematen dute; aurpegi neutroa duen trapuzko panpin batek, esaterako, emozioak definituta dauzkan panpinak baino joku gehiago ematen du; umeak berak irudikatuko ditu panpinaren emozioak. Metodo konkretu batzuk jarraitzen dituzten jostailuak daukagu: Montessori, Waldorf, Pickler... Euren kabuz jolasteko eta irudimena lantzeko jolasak dira. Material konkretutik umeak matematikekin lehenengo kontaktua lantzeko hainbat jolas ere badaude.

Zelako harrera eduki du orain arte Amazulok?

Durangoko Luburu eta Disko Azokara eta Gabonetara begira zabaldu dugu denda, eta orain arte oso harrera ona edukidu. Jende askok botatzen zuen faltan horrelako denda bat. Tailerren ideia komentatzerakoan, gainera, jendea oso pozik azaldu da.

Bularra eta lotura afektiboa

Titia ematea, elikadurarako ona izateaz gain, afektibitateko ona dela nabarmendu dute Itziar Lete eta Ane Baonza Amazuloko kideek: “Osasunerako Mundu Erakundeak onura horiek aitortu eta bi urtera arte bularra ematea gomendatzen du”. Amazulon bularra emateko txoko bat eskaini gura dute, eta baita laktantziari buruzko aholkularitza eta informazioa ere, beste gai batzuen artean.

Gaur egungo bizimoduagaz lana eta laktantzia uztartzea posible dela aldarrikatzen dute Amazuloko lagunek: horretarako laguntza, babesa eta informazioa behar direla azaldu eta azpimarratu dute.

Segurtasunerako

Umeen hasierako hilabeteetan, gurasoek umeekin duten lotura afektiboa oso garrantzitsua da umeentzat: “Horrek segurtasuna ematen die, euren ‘ni’-a sortzeko”. Nabarmendu dutenez, umeak bere erritmoan, poliki-poliki

ki joaten dira autonomia hartzen, eta batzuetan erritmo hori eta helduen erritmoa uztartzea ez da erraza. Egunerokotasunean “presaka” ibiltzearen kontuak dira: “Umea bere autonomia probatzen dabilenean, batzuetan ez diogu uzten gauzak bakarrik egiten, presadugulako kalera joateko, erosketak egiteko, lagunekin egiteko”.

Konpartizeko gonbita

Familia bakoitzak euren umeentzat onena gura duela nabarmendu dute, eta badagoela premia bat “norberak bizi dituen egoerak, daukagun zalantzak, galderak... antzeko egoerak bizi dituztenekin konpartitzeko”.

Durangon, Barrenkalen zabaldu dute denda, eta guraso berrientzako informazioa eta aholkularitza gune berezia. Lokalean produktuak kuxkuxeatu eta bertatik bertara eza-gutzeko aukeraz gainera, Internetez Facebook-en ere badago Amazuloren berri.





JAEDen ongintzako zozketa egingo dute Andra Marian urtarrilaren 6an

Durangoko JAED elkarteak orain 14 urte jarri zuen martxan lehenengoz zozketa solidarioa Andra Mariko standean. Premian daudenei laguntzea dute helburu, bai elikagaiak banatuz bai diru-laguntzen bitartez

Gabonak hurreratzen direnean JAED elkarteak bere standa jartzen du Andra Mariko elizpean. Aurten ere hainbat oparigaz bete dute etxola. Kotxea izaten da urtero sari preziatuena. Aurten Citroen Picasso monobolumena da sari nagusia. Ikus-entzunezkoen arloan merkaturatu dituzten azken nobedadeak ere eskuratu daitezke; tablet zein liburu elektronikoak. Nobedade moduan, aurten tolesten den Conor bizikleta jarri dute zerrendan. Guztira, 52 oparik abenduaren 6ko zozketan jabea topatuko dute.

Zozketako txartelen salmenta martxa onean doala azaldu digu Iñaki Gorritxategi JAEDeko kideak. "Azoka egunetan ere ondo saldu dugu". Txartelak 1,25 euroan jarri dituzte salgai, iazko moduan: "Prezioa ez dugu igo gura izan, denek erosi ahal izateko". 60.000 papeleta saltzea da helburua. Iaz 58.000 inguruan gelditu ziren.

Helburuak

JAED elkarteko kideek urteak daramatzate premia duten pertsonen laguntzen. Krisiaren eragina ondo ezagutzen dute elkartean. "Urte gogorra izan da. Aste-an birritan zabaltzen dugu

bulegoa, eta ilarak sortzen dira". Udaleko gizarte laguntzaileekin hartu-emanen daude, premia duten lagunei asistentzia emateko. "Gure inguruan geroago eta gehiago dira langabezian daudenak eta laguntza behar dutenak". Elikagaiak eta bestelako produktuak erosten dituzte, eta familia bakoitzarendako paketea prestatzen dute elkarteko kideek. "Elikagaien Bankutik eta Europatik datorrena ere banatzen dugu", azaldu digu Gorritxategik.

Premiazko egoeran dagoenaren datuak konfidentzialak dira, eta paketeak egiten dabiltzanek ere ez dituzte ezagutzen. "Diskrezio osoagaz jarduten dugu. Oso garrantzitsua da jendearen errespetua edukitzeko, azaldu digutenez.

Arropak batu eta banatzen jardun du JAEDek urteetan, baina orain zeregin hori bertan behera utzi du. "Arropak sailkatzeko eta garbitzeko lan handia zen, eta ez geneukan behar en

Pinondo Etxean daukate lokala JAED elkartekoek

moduan egiteko baliabiderik", diote elkartetik. Orain, JAEDeko bulegoa Pinondo Etxera lekualdatu dute. Bigarren pisuan daukate orain egoitza, premia duten guztiak bertara gerturatzen.

Citroen Picasso monobolumena da aurten zotz egingo duten sari nagusia

JAED elkarteak 60.000 txartel 1,25 euroan ipini ditu salgai

604 familia lagundu ditu aurten JAEDek

Krisiak Durangaldea gogor kolpatu du. Datuek ez dute zalantzarako tarterik uzten. Iaz JAED elkarteak 450 familia lagundu zituen eta aurten, berriz, 604 familia.

Elikagaiak banatzen ditu elkartek; geroago eta gehiago, gainera. Aurten 61.860 kilo elikagai banatu ditu elkartek janaritan, eta guztira 77.415 euroko gastua egin

du. Diru-laguntzetan 107.632 euro banatu dituzte. "Astean 3.000 euro gastatzen ditugu janaritan. Banatzen duen janaria kalitate aldetik asko hobetu dutela diote JAEDeko kideek. "Umeek produktu freskoak jatea komeni denez, orain, galtzen ez diren produktuez gainera frutak, ortuariak, oilaskoa, arraultzak eta abar ere banatzen ditugu.



EMEK ANTOLATUTAKO GABON EKINTZAK

2011



Umeentzako ipuin
lehiaketa "dendak
zabalik herria bizirik"
lelopean. Hiru sari eta
parte-hartzaileentzako
saritxo bat.



Leiho, balkoi
eta etxe aurreak
gabon giroan jartzeko
lehiaketa. Sari bi eta
parte-hartzaileentzako
saritxoak



2100 euroko erosketa- txartela
zozketatuko da bazkideen
dendetan trukatzeko. 2012ko
urtarrilaren 9an zozketatuko da

Bazkideen arteko Gabonetako
erakusleihoen lehiaketa. Sari bi egongo dira.



elorrioko merkatarien elkarteak

*Zorionak eta
urte berri on*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA. MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

GABONETAKO EGITARAUAK

Abenduaren 16tik 24ra arte

Elorrio

ABENDUAK 16, BARIKUA

17:00 Irakurketa lehiaketako sari banaketa eta Mirta Portillo ipuin kontalaria Iturri kultur etxean

20:00 Biolontxelo kontzertua Santa Anan: Cristina Moibner eta Julia Palau

23:00 DJ gaua Parran: Reggae & Dancehall eta Selektah Stepi

ABENDUAK 17, ZAPATUA

Goizean rugby eskolen kontzentrazioa
16:00 Seniorren partida: Elorrio-UPV Bilbao Errugby zelaian

20:00 Kantoriak programaren barruan, koru kontzertua: Bogoroditsie. Arriolan

23:00 Kontzertuak Gaztetxean: Gorroto eta Talde gonbidatua

ABENDUAK 18, DOMEKA

12:00 'Elkartasun Jaialdia' Kainaberak antolatuta, Hilario Azkarate frontoian

19:00 Kantoriak programaren barruan abesbatzen kontzertua: Berrio-Otxoa, Leioa eta Mungiako abesbatzak, Santa Anan

ABENDUAK 21, EGUAZTENA

18:30 Musika Eskolako Gabonetako jaialdia

ABENDUAK 23, BARIKUA

10:30-13:00 San Tomas Azoka, Herri Eskolak eta Elorrioko Institutuak antolatuta, Herriko plazan

20:00 Kantoriak programaren barruan kontzertua: Landarbaso Abesbatza Arriolan

EMEk, bestalde, hainbat lehiaketa antolatu ditu Gabon ingururako:

Leiho, balkoi eta etxaurreak apaintzeko lehiaketa abian da, eta umeentzako ipuin-lehiaketa ere bai, 'Dendak zabalik herria bizirik' lelopean. Merkatarien elkarteko bazkideen artean erakusleho lehiaketa ere antolatu dute, azken urteetan legez



Iurretara

ABENDUAK 20, MARTITZENA

20:00 Abenduko koplak entseguak Goiuria Kulturgunean

ABENDUAK 16, BARIKUA

20:00 Nagusientzako ipuin-kontalaria Herri Bibliotekan: Virginia Imaz, "Corazonadas"

ABENDUAK 23, BARIKUA

Olentzerori gutunak: eskoletako umeek euren gutunak ekarriko dizkie Olentzerori Ibarretxe kultur etxera, eta gero pare bat abesti abestuko dizkiote

10:00 Etxez etxe koplak kantatzera irten-go dute San Migel plazatik

10:30 Eskolekin hitzartutako antzerki saioa Ibarretxe Kultur Etxean:

Txikientzat, Mari antzerki taldea
5 urtetik gorakoentzat, Ane Mona Oskola eta Karramarroi: "Hator hator, Olentzaro dator"

ABENDUAREN 12tik 24ra

Gutun-postal lehiaketa:

13 urtetik beherako umeei zuzenduta. Ibarretxe kultur etxean aurkeztu beharko dira lanak abenduaren 24a baino lehenago. Sari banaketa abenduaren 30ean egingo dute, 12:30ean, Ibarretxe kultur etxean bertan. Hiru sari emango dituzte, adin-tarteen arabera aurkezten dituzten gutun onenei.

Erakusleihen lehiaketa:

Iurretako edozein establezimenduk parte hartu dezake eta izena emateko azken eguna abenduaren 20a da. Urtarrilaren 5era arte egongo dira erakusketan. Erakusleho onenak bi pertsonentzako afaria irabaziko du, Agarreko tabernetan.

Gabonak 2011-2012



duran...go!
goazen!

ZORIONAK!!

ABENDUAREN 16TIK 21A ARTEKO EGITARUA

ABENDUAREN 16a Ostirala	KONTZERTUA Bartolome Ertzilla Musika Eskolako ikasleak	19:00 San Agustin Kultur Gunea Sarrera: 2 €
	MUNDUKO AHOTZAK: Helduentzako ipuin kontaketa Mirta Portillo. Kubatik	20:00 Udal liburutegia - 3. Solairua
ABENDUAREN 17a Larunbata	HAURRENTZAKO IPUIN KONTAKETA SAIOA "KONTU KANTOI"	12:00 3 - 5 urte 12:30 6 urtetik gorakoentzat Udal Liburutegia (Euskaraz)
	GABON JAIA Iñurri Eskaut Taldea	17:00 Andra Mariako Elizpea eta Basilika
	XIV GABON KANTEN JAIALDIA Centro Palentino Castellano Leonés	18:00 San Agustin Kultur Gunea
	GABONETAKO KONTZERTUA Durangoko Orfeoia	20:00 San Frantzisko Eliza
ABENDUAREN 18a Igandea	XLIV GABON KANTEN HAUR JAIALDIA Tronperri eta Txoritxu Alai Dantza Taldeak	11:30 Landako Gunea
	HAUR ANTZERKIA: "LEHIOTIK MUNDURA" Kukubiltzo antzerki taldea	18:00 4 - 7 urte Sarrera: 4 € (Euskaraz) San Agustin Kultur Gunea
	ORGANO ETA TRONPETA KONTZERTUA Pedro Guallard eta Juan Vicente Codina - Arandoño Kultur Elkarte	19:00 Santa Anako Eliza
	ADINEKOENTZAT GABONETAKO DANTZALDIA "LOTXO TALDEA"rekin	18:30 Landako Kiroldegia
ABENDUAREN 20a eta 21a	GABONETAKO KONTZERTUAK Bartolome Ertzilla Musika Eskolako ikasleak	18:00 eta 19:30 Bartolome Ertzilla Musika Eskola
ABENDUAREN 21a Asteazkena	ADINEKOENTZAT IPUIN KONTAKETA SAIOA: "ABUELAS"	17:00 Udal liburutegia (Gaztelaraz)



Pirritx, Porrotx eta Marimototsek lan berria aurkeztuko dute Durangon

Auzolanean ekoitzi eta argitaratu dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Zazpikoloroa' lan berria; mundua kolorez margotzera eta aniztasun zein elkartasunez betetzera datoz pertsonaia berriekin batera

Zazpikoloroa izeneko lan berria aurkeztuko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen Durangon, urtarilaren 7an. Landako Gunera hurreratuko dira, bi saio eskaintzeko: lehenengoa 16:00etan eta bigarrena 18:30ean. Durangaldeko haurrentzat aukera aparta izango da modako pailazoak zuzenean ikusteko. Seguru ehunka jarraitzaile batuko direla erakustazokan.

Istorio berria

Aurreko argitalpenean Pupu eta Loregaz familia hazita etorri ziren, eta oraingoan Zazpikoloroaren istorioagaz datoz. 20 abesti labetik aterata berri, aniztasuna eta elkartasuna izan dituztelarik lan osoari forma emateko oinarri.

Elortza, Iturriaga, Amuriza eta Magdalenaren laguntza izan dute

Lagunen ekarpena

Azaldutenez, disko berriaren grabaketan 100 lagunek estudiotik: Aiora Renteria (Zea mays), Amets Arzallus, Xabi Solano, Andoni Egaña, Anje Duhalde eta Amparo Sanchez (Anparanoia) izan dituzte bidelagun, adibidez. Sortzaileen eremuaz harago, Haimar Zubeldia eta Markel Irizar txirrin-

dulariak ere ausartu dira, besteak beste, pailazoen letrak abes-tera. Xabier Zabala musikariak izan du konposizioen ardura. "Gure ametsi musikajartzen die-na" legeaz aurkeztu dute Zabala.

Durangaldeko boligrafoa

Letrak idazteko ere jaso dute hainbaten ekarpena. Tartean, Durangaldeko lau lagunek idatzitakoak: Igor Elortzak Zazpikoloroa eta

Nork agindu du?, Unai Iturriagak Belekoi anderea, Xabier Amurizak Obabatxoa Patakon eta Peru Magdalenak Irri eginez.

Zazpikoloroa heroi berriak kolorea eta elkarrenganako errespetua zabaldu gura du Belekoi andere gaiztoaren aurrean. "Ostadarraren banderak zazpi kolore dituelako eta lora piraten txoria delako" aukeratu dute Zazpikoloroa. Hori guztia, zelan ez, mai-

Grabaketan 100 bat lagun pasatu dira Garate estudiotik

tasun handiz egin gura dute, "piratekin batera, elkartasunaren bidean abiatuz".

"Auzolanean, irudimentsu eta era alaian" sortu dute lan berria, pailazoen diotenez. Euskal Herrian aspalditik saretua duten koadrilarako beste lan bat izango da. Sorkuntza berria jendaurreko ekitaldietan aurkeztuko dute, eta Igor Elortzak ondu du ikuskizun horren gidioa.

Igor Elortzak egin du ikuskizun berriko gidioa, eta "erronka erakargarria" izan da bere berbetan

Zer aurkituko dugu urtarilaren 7ko ikuskizunean?

Elkartasunaren eta aniztasunaren bueltako fabula bat. Pertsonaia nagusi bi sortu ditugu: Zazpikoloroa eta Belekoi. Lehen zazpi koloreko lora da, munduari koloreak eta aniztasuna ematen dizkion hegazti miragarria. Bigarrenai bele berekoa da,

mundu zuribeltza gura duena. Elkartasunaren aldeko ekintzailea den Patakon piratari lagundu beharko diote pailazoen, Zazpikoloroa Belekoiarengandik babesteko.

Zer hartu duzu kontuan?

Umeentzat denez, sakonean dauden gai eta berba potoloak zelan adierazi haus-

nartu genuen lehenengo. Nahiz eta fabula bat izan, kontzepturen batzuk erabiltzera derrigortuta zaude. Ahalik eta ulerterrazten izaten ahalegindu naiz, berba sinpleak erabiliz: 'justua' esan barik 'ona' esanez, adibidez. Horri, kanta eta umorea gehitu behar zaizkio, zelan ez. Eta denbora ere neurtu dugu. Hasi eta amaitzen den istorioa da; umoreak eta kante asko lagunduko dute, baina erronka handia da umeen arreta mantentzea. Orain arte, pailazoen emanaldiak esketekin, zatika osatuak izan dira.

Hezigarria da pailazoen lana.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots markaren ezaugarri nabarmena da hori, bai euren lanetan bai bestelako kolaborazioetan. Garrantzitsua da, umei mundu ikuskerak ematen dabilzalako, balore positibo, aurrerakoi eta zabalekin. Esperientzia ederra eta erronka handia izan da niretzat, umeen mundua zirraragarria, misterioa eta sentibera delako. Lehenengo egiten dut halakorik.



GABON
HAUETAN
ESKA EZAZU
ZERBAIT
ZIRRARAGARRIA

 **EROSKI** bidaiak
zurekin

www.viajeseroski.es





Oparitarako aukera zabala eskualdean

Ez da komeni erregaluak banatzeko ardura osoa Olentzeroren esku uztea. Munduko zakurik handiena lepoan hartuta duela Durangaldeko etxe guztiak bisitatzea lan nekagarria da; beraz, onena eta gomendagarriena oparirik esan-guratsuenak norberak egitea da.


Kirola egiteko bizikleta bat, haurrentzako jostailuak, arropentzako gehigarriak, liburuak... denetariko aukerak aurkituko dituzu ondoko orrialde bietan. Durangon eta lurretan opari ederrak egiteko aukera zabala dago, kanpora joan beharrik barik. Denbora eskatzen du, baina zer ordainsari hobetik oparia jaso duenaren esker ona eta irribarrea baino?



UNDARRI BIKE



Bizikleten salmenta eta konponketa




Bidebarrieta 5 behea lurreta
Tel.: 94 681 78 08



Barrenkale 22 - Durango
Tel.: 94 657 09 17

URTINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK
ESKULANAK



Andra Mari 9-Durango
Tel.: 94 681 50 17



Uribarri 21 - Durango
(zinema aurrean)
Tel.: 94 603 24 26



Barrenkale 18
Durango
Tel.: 94 657 00 87



Artekalea 14 -Durango
Tel.: 94 681 07 76



Artekalea 16 -Durango
Tel.: 94 655 04 46

afede

JOSTAILU-DENDAK

Oparirik onena Gabon
hauetan seme-alabek,
ilobek, lagunen umeei
zein zeuk jolasteko!



EMMA
hiztuna

EMMA HIZTUNA
Euskaraz hitzegiten du
19,99 €



SOINU LIBURUA
Botoiak sakatu eta soinuak entzun
13,95 €



HEZIGARRIA
Konektatu galdera bakoitza
bere erantzunarekin
17,95 €



ZEIN DA ZEIN?
Trebetasun jolasa
9,95 €

HITZ GURUTZATUAK
Hitz osatuen betiko jolasa
14,99 €



IRABAZI JOLAS BAT JOLASTUZ Zenbat urte bete ditu aurten Anbotok?

Bidali erantzuna eta zure datuak: astekaria@anboto.org-ra

Fray Juan de Zumarraga, 15 - Durango
SIMPLY supermerkatuan - Durango

Zornotza: Gudari etorbidea, 49
Eibar: San Juan kalea, 13

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak

 @

Zelaieta herri eskolako amesgaiztoa

Iragarrita zegoen. Abadiñoko herrian gero eta ume gehiago jaio-tzen da eta eskola txikiago ari da geratzen. Matrikulazioa gorantza doa urtez urte, eta eskolak eskaintzen dituen zerbitzuek gainezka egin dute. Lekurik ez, alegia.

Eskola eta jantokia handitzeko auzia aspalditik dator. 2006 urteko azaroan egindako Eskola Kontseiluak argi utzi zuen jantokia eta gimnasioa handitu beharra zegoela, eta horixe adierazi zion udalari. 2007an udal berria eratu zen, eta beste behin ere jantokia eta gimnasioa handitzeko premia iragarri zitzaion.

2009an arazoa urrunago joan zen. Bi urteko gelan matrikulu-latu nahi zuten haur guztiek ezin izan zuten izena eman. Izena eman zuten guztientzako tokirik ez zegoela-eta, horietako lau umek Matienako eskolara joan behar izan zuten. Egoera onartezina zen, eta beste behin ere udalaren aldetik ez genuen babesik jaso. Horrela, gurasoen borrokari esker Zelaieta eskolan izena eman zuten haur guztiek bertan geratzeko aukera izan zuten, beste eskola batera joan beharrik gabe. Onartezina baita, norbere bizilekutik gertuen dagoen eskolan izena ezin eman izatea.

Urteak joan eta urteak etorri, berdin jarraitzen dugu. Arazo larria daukagu aurrean. Jantokia, eskola, gimnasioa... txiki geratu dira. Honen aurrean delegaritzak (Hezkuntza Sailak) ez digu handitze-lanen inguruan egingo diren bermerik ematen. Udalarari dagokionez ere, kezkatuta gaude, ez baitiogu inolako sinesgarritasunik ematen orain arte eman dituen esanei eta argudioei. Udalak ez digu behar besteko babesik eman.

Haur Hezkuntzako ume batzuek eguerdiko ordu bietan bazkaltzen dute. Jantokiko handitze-lanak egin bitartean barrakoiak eskatu zitzaizkion udalari, horrela umeek hain berandu jan ez dezaten. Hasiera batean udalak ez zuen ezetzik esan, eta gaia aztertuko zuela esan zuen. Orain, berriz, jantokiko aferak berdin darrai.

Urriaren 5ean udalarekin jarri ginen harremanetan, eta barrakoiak jartzen dirurik ez zuela gastatuko adierazi zigun oraingoan. Bere arabera, delegaritzak 2012ko ekainean hasiko dituelako handitze lanak, eta barrakoi beharrik ez delako egongo. Eta suposatuz, udan obrak bukatuko direla.... Ikusten denez, berriz ere udalak ezezkoa.

Handitz- lanen inguruan inolako informaziorik ez gurela ikustean, gurasoen kezka areagotu eta gure aldetik gestioak egin hasi ginen. Eta gure harridurarako delegaritzak 2012an obrak ez zirela hasiko konfirmatu zigun. Udalak eta zuzendaritzak zuten informazioaren kontrakoa alegia. Eskolako gurasook lortu dugu benetako informazioa; egia, alegia. Eskolako zuzendaritzak eta udalak eman dizkiguten erantzunek ez dute zerikusirik izan gertatuko denarekin, eta hau lotsagarria da. Ustezko baieztokak eta ustezko ezeztokak....Eta arazoa irtenbiderik gabe!

Gurasook oso arduratuta gaude. Alde batetik, gure umeek jantokirik ez dutelako edukiko eta, bestetik, udalaren aldetik inolako babesik jasotzen ez dugulako. Egoera hau jasanezina da, eta gure herriko umeentzako eskolako baldintzak bermatu nahi baditugu, udalak ere bere erantzukizunak bete beharko ditu. Egokiena izango den irtenbidea ematen saiatu beharko du, eta orain arte ez bezala, saiatzeko gogoia erakutsi beharko du. Zelaietako herri eskolako gurasook ezin dugu udalaren ezeztokak onartzen jarraitu, eta eman beharreko pausoak betetzea eskatzen diogu.

Zelaietako guraso elkarte

Euskal presoak etxera

Datorren urtarrilaren 7an, urtero bezala, euskal preso politikoaren eskubideen aldeko manifestazioa egingo da Bilbon, baina oraingo hau ez da aurrekoetan egin diren bezalako manifestazioa; oraingoa ezberdina da. Euskal Herria benetako bakea lortzeko bidea egin ari den unean gauzatuko den manifestazioa da hau. Horregatik da ezberdina.

Abenduaren 30ean Durangon eta urtarrilaren 7an Bilbon, euskal presoaren eskubideen defentsa egingo da; euskal preso politikoaren eskubideak errespetatuak izan daitezkeen aldarrikatuko da, baina hori ez da izango guztia. Bi data hauetan, zabaldu den bake prozesuaren alde egingo da, bake justu baten alde, Euskal Herriari dagozkion eskubide guztiak onartuko dizkion bakearen alde. Finean, gure etorkizuna modu aske batean hautatzeko eskubidea eskainiko digun bake baten alde egingo dugu.

Bilbo eta Durangoko kaleetan presoaren eskubideak eta bake justu bat aldarrikatuko dira, biak eskutik doazelako, presoaren eskubideak bermatzeak eta presoaren aldarrikape-nak onartzeak nahi eta behar dugun bake horretara gerturatzeko gaituelako.

Beharrezkoak dira preso gaixoen etxeratzea, 197/2006 doktrinaren desaktibatzea eta zigor osoa bete duten presoaren kaleratzea; beharrezkoa da, baita ere, 3/4ak eta 2/3ak bete dituzten presoaren kaleratzea. Hala nola, beharrezkoa da dispertsio politikarekin amaitzea, EPPKri estatus politikoa onartzea bake prozesuan parte aktibo izatea bermatuz. Beharrezkoa da, azkeneko, espetxeetan euskal preso politikorik ez geratzea.

Gatazka latz hau atzean uzteko neurri horiek guztiak ahalik eta arinen hartu behar dira; ezinbestekoak dira bake bidean aurrerapausoak emateko, eta alde humanotik ere oso beharrezkoak dira.

Honegatik guztiagatik, Castellongo espetxetik abenduaren 30eko eta urtarrilaren 7ko manifestazioetan parte hartzeri animatzen zaituztet; presoaren eskubideen alde borrokatzeri, amnistiarekin alde borrokatzeri, eta are gehiago, egunero zuen ikastetxe, lantegi, auzo eta herrietan horren guztiaren alde lan egitera animatzen zaituztet.

Ziur izan guk etenik gabe borrokatuko dugula; guztion indarrarekin lortuko dugu!

Besarkada bat.

Zunbeltz Larrea - Euskal preso politikoa

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira: astekaria@anboto.org edo Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira. *DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*

Sei hankako mahaia



Dani Maeztu Aralar

Ez gure diruarekin

Ingurumena ez litzateke izan behar, etekin ekonomiko partikularra ateratzeko asmoarekin, ekimen pribatu batek beharrezkoa duen medioa; baizik eta guk eta hurrengo belaunaldiak disfrutatu behar dugun ondarea. Interes publikoa interes partikularren gainetik jarri behar da. Baina zoritxarrez, Urkiolan, Zalloventa harrobiaren kasuan, interes pribatua interes publikoaren gainetik jarri da.

Baina badago kontu honetan oinarri-oinarrian dagoen jatorrizko bekatu bat: Urkiolako Parke Naturala babesteko tresnak diseinatu zirenean, harrobiaren ustia-pena onartu zen. Eta edonork daki mendia zulatuz mendia babestea ezinezkoa dela.

Gainera, badirudi administrazioak lagundu egiten duela herritar gutxi batzuen poltsikoak betetzen (interes partikularra), herritar askoren poltsikoak hustuz (interes publikoa). Zalloventa harrobia ustiatzeko zuten mugak aldatu zirelako enpresak kalte-ordainak eskatu dizkio administrazioari, eta epaileek 9,2 milioi ordaintzera zigortu dute. Guztion poltsikotik bildutako dirua poltsiko batera joango da.

Gaia gertutik ezagutzen ez bada, ematen du enpresa pribatu horrek administrazio publikoak baino trebetasun handiagoa izan duela gaia kudeatzeko orduan. Baina kasu honetan ezin da ahaztu 2010ean epaitegiek Zalloventa S.A-ri esan ziotela ez zuela harrobia ustiatzeko eskubiderik. Nahiz eta zirrikitu legal guztiak erabili zituen ustiapenarekin jarraitzeko, 2010ean epaitegi gorenak zirrikitu guztiak itxi zituen. Beraz, Jaur-laritzak ez du zuzen jokatu egoera honetara heldu bagara, ez badago ustiatzeko baimenik ez da inongo interes ekonomikorik urratu.

Beraz, hauxe aldarrikatu behar dugu ozen: "Ez gure diruarekin!". Batez ere, Mañarian harro-bien inguruan lanean ari zareten herritar guztiak elkartasuna adierazteko, eta egin duzuen lana eskertzeko.

Laguntzaileak:



Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du







EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto

durangaldeko
astekaria

2011ko abenduaren 16a
10. urtea - 441 zk.

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:
Joseba Derteano.

Administrazio burua:
Itziar Belar.

Administrazioa:
Miren Abasolo.

Publizitatea:
Goretti Alonso,
Amaia Huarte.

Erredakzioa:
Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia,
Amaia Ugalde.

Maketazioa:
Ainhua Arizmendiarieta.

Testu zuzentzaileak:
Igor Elortza.

Argazkilariak:
Kepa Aginako eta
Juanra de la Cruz.

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN



Astero etxean DOAN jaso dezazun egiten dugu behar

12.000 BAIETZ!



anboto
komunikabideak



Harpidedun berrien artean asteburuetako egonaldiak zotz egingo ditugu.

HARPIDEDUN EGITEKO **3** AUKERA DITUZU:

1

anboto@anboto.org
helbidera idatzi.

2

946816558
telefonora deitu.

3

Kupoa bete eta
bidali Anbotora.

ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA



Izena Abizenak

Telefonoa E-posta

Helbidea..... Herria.....

@anbotokirola

KIROLAK >

Waltary-Martin Tornosolon eta Bilbao Olazarren, aurkari zain

Abadiñoko trinketea eta Zaldibarko pilotalekuan batuko dira pilotazaleak datozen egunetan



Tornosolo Masterreko final-laurdenetako partidak martitzen iluntzean jokatu zituzten. Kepa Aginako

O lentzerok dagoeneko bisi-tatu ditu Durangaldeko pilotazaleak, eta urtea amaitu arteko pilota egutegi oparoa utzi die erregalu moduan. Olazar txapelketan Bilbao lapurtarra finaleko arerioaren zain dago lau t'erdian. Abadiñoko Tornosolo trinketan, berriz, Masterreko finala jokatu dute asteburuan.

Joan zen egunean, Olazar pilota txapelketako finalerdian, Bixintxo Bilbao erabat nagusitu zitzaion Jaka gazteari Zaldibarrren (22-10). Lehenengo zatian berdindu samar joan baziren ere, bigarrenean Bilbaok partida

erabat hautsi zuen. Oso ondo baliatu zituen Jakaren opariak, eta fisikoki ere ederto prestatuta dagoela erakutsi zuen. Bigarren finalerdia atzo iluntzean jokatu zuten Elezkanoren eta Urretabizkairen artean (emaitza ikusteko: www.anboto.org).

Binakako finalistak abenduaren 22an, 21:30ean, erabakiko dituzte. Batetik, Yoldi-Arratibel Albarado-Perezen aurka lehiatuko dira; ondoren, Altxelaik eta Diezek Elezkano I.aren eta Gorrotxategiren aurka jokatu dute. Finalak abenduaren 31an, 16:30ean, jokatu dituzte.

Binakako txapelketa hasiko du gaur Pablo Berasaluzek

Albisu bizkartzain duela, Olaizola II.aren eta Beroizen kontra jokatu du Sestaon

Binakako txapelketa irabazteko faboritoen zerrendan dauden Olaizola II.aren eta Beroizen kontra jokatu dute estreinako partida Pablo Berasaluzek eta Jon Ander Albisuk, gaur gauean

Txapelketako pilotaririk gazteena izango du atzean berriztarrak

Sestaoko pilotalekuan. Albisuk lehenengo biderrez jokatu du txapelketa nagusia, baina bada-ki binaka txapela burura eroatea zer den, bigarren mailako gaur egungo txapelduna bera da-eta, Olaetxeagaz batera.

Berasaluzek 1999. urtean txapeldunorde geratzea lortu zuen, Beloki bizkartzain zuela. Aurten, txapelketako pilotari gazteena du atzean; 21 urte ditu Albisuk ataundarrak. ■ J.D.

Tornosolo Masterreko finalak zapatuan 17:00etan hasiko dira

Olazarren, Bixintxo Bilbaok erraz irabaziz Jakari (22-10)

Masterra Abadiñon

Bestalde, zapatuan 17:00etan, Tornosolo Masterreko finalak jokatu dituzte Abadiñon. Nagusietan Waltary eta Ander Martin finalerako sailkatuta daude. Arerioak nortzuk izango diren atzo iluntzean erabaki zen Uriarte-Antxia eta Gonzalez-Loquilloren artean. Gazte mailako finala Prietok eta Barandiaranek jokatu dute.

Mikel Gonzalez berriztarrak beste final bat jokatu du orain-tsu. Nazioarteko IV. Pilota Txapelketan, Ugartegaz bikotean, 37-40 galdu zuen Larrazabal eta Waltaryren aurka. ■ J.Derteano

Tornosolo eta Atxarte, klubaren arteko finalean

Hainbat maila eta espezialitatean Bizkaiko klubaren txapelketako finalak jokatu dituzte gaur eta bihar, eta Durangaldeko ordezkari bi izango ditugu: Abadiñoko Atxarte eta Tornosolo klubak, hain zuzen ere. Barikuan, 19:00etatik aurrera, 22 urtez azpiko eskuz binakako finala jokatu du Atxartek, Gure Kirola L-aren aurka, Ortuellako pilotalekuan. Emakumeen gomazko paletan Tornosolok Lea izango du arerio, gaur 19:30ean, Sopelan.

Bestalde, xistera modalitateko finalak Durangon jokatu dute, zapatuan 10:30ean. Maila denetan Markina eta Berriatua dira finalista. ■ J.D.

Abadiño, txapel bila pisurik parekatuenean

Lauko sokatira txapelketan 300 kilora arteko finala jokatu du Abadiñok asteburuan Arrankudiagan. Amaiurren talde bi, Sokarri eta Ibarra izango dituzte arerio. Edu Mendizabal abadiñarren entrenatzaileak lehia parekatua itxaroten du: "Edonork irabazi dezake. Badakigu irabazteko mailarik onena eskaini beharko duguna, eta horretara goaz".

Oraintsu 320 kilora arteko txapelketa irabazi dute, eta Abadiñoko bigarren talde batek hirugarren geratzea ere lortu zuen. 300ekoa irabaziz gero, lau txapelketako pisu bietan nagusi izango lirateke.

Urtarrilaren 7an goma gaineko zortziko txapelketari ekingo diote. ■ J.D.

Hobetzeko grina eskertzeko saria Jon Karrori

Jon Karro triatletak "Kirolaren eta hobetzeko grinaren" alorreko saria jasoko du abenduaren 23an, EITBko Multi-boss aretoan egingo duten ekitaldian. Beste bederatzi kirolariren artean triatleta abadiñarra izan da aukeratua.

Aurten marka handiak egin ditu Karrok. Diabetikoa izanda, 24 orduan bizikleta gainean ibili zen Durangalde inguruan antolatutako zirkuituan. Oraintsu diabetea eta kirola bateragarriak direla islatzea gura duen dokumentala estreinatu du, eta proiektu berriak prestatzen dabil. ■ J.D.



Orain 12 urte txapeldunorde geratu zen Ruben Belokigaz.

Azken postutik irteteko aukera du DRTk bihar

Bartzelonari irabazten badio eta Hernani liderrak Hercesa mendean hartzen badu, azken postutik irtengo dira lehenengoz



Orain arteko zortzi partidetatik, bi irabazi eta sei galdu ditu Durango Ilarduyak. Kepa Aginako

Ohorezko B mailako denboraldia hasi zenetik lehenengoz, azkeneko postutik irteteko aukera du Durango Ilarduyak. Liga amaitzeko sei jardunaldiren faltan, DRT azkena da, 10 puntugaz, eta Hercesa azkenaurrekoak 12 dauzka. Durangarrek Bartzelona hartuko dute domekan etxean: "Erronka gaitza, baina lorgarria", Zorion Zabala entrenatzailearen ustez. Hercesak, berriz, orain arteko lehia denak irabazi dituen Hernaniren zelaia bisitatuko du. Marka litzaitek Hernani ez nagusitzea.

Gabonetako atsedenaldira azkeneko postutik kanpora heltzea, ligako azken txanpari grina eraberrituz ekiteko modua izan

"Etxetik kanpora ez ditugu etxeko grina eta gogoia berdintzen"

Arerio zuzenek Durango bisitatu behar dute oraindino

"Taldea indartsua da Bartzelona, baina irabazi dezakegu"

daiteke. Horretarako lehenengo baldintza domekan Bartzelona hirugarren sailkatua gainditzea da: "Taldea indartsua dute, baina gure liga oso parekatua da. Gure taldea gogotsu dago, eta irabazteko aukera izango dugula uste dut", dio Zabalak.

Arripausueta gotorleku bihurtu gura dute, eta salbazioa Durangon bertan ei dago: "Independiente eta Hospitalet talde-

ek hona etorri behar dute, eta neurketa horiek irabaztea lortzen badugu azkeneko postua ekidingo dugula uste dut".

Kanpoan makal

Ohorezko B mailan daramatzaten zortzi urteetako askotan sufritzea egokitu bazaie ere, aurtan bereziki txarto dabilta; batez ere, etxetik kanpora. Etxean erakusten duten grinarik ezin dute erakutsi Arripausuetatik urrun. Autokritika egiten lehenengoa entrenatzailea bera da: "Joko aldetik sarritan ez da alde handirik izaten, baina motibazioan eta kontzentrazioan huts egiten dugu. Nahi baino errazago egiten dizkigute entseguak. Etxean erakutsitako grina eta txispa berreskuratu behar ditugu kanpoan".

Bestalde, zapatuan 10:00etan, Sukia errubgi eskolak gaztetxoan kontzentrazioa egingo du Durangon, Arripausueta zelaian. ■ J.D.

Iker Saenz de la Cuesta
• Areto futbol entrenatzailea



Egoera kezagarria

Ez dira momentu zoragarrienak Durangaldeko areto futbol taldeak igarotzen ari direnak, eta Gabonetako geldialdia heltzeaz dagoenean beldurra ematen du hirugarren mailan eta euskal ligan dabilzan gure taldeen sailkapena ikusteak.

Hirugarren mailan Elorrioko eta Sasikoa azken bi postuen jabe dira, nahiz eta partidu onak jokatu -Elorriokok Sestaori irabazi zion eta Sasikoak Gora hartu zuen menpean, gero bulegoetan puntuak galdu arren-, eta asko aldatu beharko dira gauzak liga amaieran maila mantentzeko arazorik izan nahi ez badute. Bestalde, Mallabia bere lehenengo urtean hirugarren mailan denboraldi polita burutzen dabil, eta esan liteke ustekabe atsegina dela ematen ari direna; sailkapenean zortzi lehenengoen artean sartuta daude.

Eta hirugarren mailan gauzak oker doazela esan badugu, euskal ligan ezin okerrago doaz. Sasikoak eta Kurutziagak ez dakite oraindik puntuak batzea zer den, eta urte honetan egindako aldaketak konfiantza eta segurtasun falta bilakatu dira liga hasieran. Baina euskal ligan beste bi taldek liga uztea erabaki dutenez ziurrenik ez da jaitsierarik egongo, eta bai Sasikoa bai Kurutziaga gogotsu ari dira lanean taldean oinarri sendoak ezartzeko helburuarekin. Denok espero dugu biak emaitza onak lortzen hasiko direla Gabonen ondoren, azken partiduetan hobekuntza itxaropentsua izan dutelako.

Lerro hauetatik nire animoak denoi, asko gelditzen da denboraldia amaitzeko eta ezin da bururik makurtu!

Espainiako Kopa irabazi du Egoitz Murgoitio

Kopako egutegia osatzen zuten lau probak irabazi ditu; azkena, Alcobendasen

Alcobendasen lortutako denboraldiko hamaikagarren garai-penak Espainiako Kopa poltsikoratzeko balio izan dio Egoitz Murgoitiori. Kopa osatzen duten lau lasterketak irabazi ditu, gainera. Alcobendasekoak aurreko guztien antza izan zuen. Hasiera-hasieratik nagusi agertu zen abadiñarra, eta bakarrik helmugaratu zen inork ezin izan zuelako bere erritmoa mantendu: "Ez nuen pentsatzen

hainbesteko alderik aterako nuenik, zirkuitua teknikoa zelako, bihurtu eta erritmo aldaketak askokoa". Espainiako Kopako garaipena "beti ondoan daudenei" eskaini die Murgoitio. 23 urtez azpikoan, Hirumet taldeko Pablo Rodriguezek hirugarren amaitu du.

Datorren asteburuan Namuren -Belgikan- Munduko Kopako hurrengo lasterketa lehiatuko dute. ■ J.D.

R.P.S. 21408

A. Urreta podologia

- Oinetako patologiak
- Neurritza egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behe

48200 DURANGO

Tel./Faxa: 94 621 54 04

Ainara Urreta Jaiñaga

PODOLOGIA 188. Elkargokidea

Z&R MODA

Kalitaterik onena preziorik onenean - Behar duzun guztia zure eskuetan

Astarloa 9 - Durango - Tel.: 94 657 09 73

Gremioen gida

PINTURAK

Pinturas Sagasta Pinturak

APAINGARRIA ETA INDUSTRIALA

- Fatxadetarako proiektu bereziak (impermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944 • IBAI URIEN

DEKORAZIOA

a-metz

[barne] diseinua

Diseinua - Dekorazioa
Ideiak - Proiektuak 3D
Legalizazioak - Erreformak
Gremioen koordinazioa
Altzariak - Osagarriak

www.a-metz.com

Ibaizabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81 • Durango

AROTZERIA

EGUIA s.l.

AROTZEGIA

- GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@corpinterioegui.com

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Panasonic

Telebés
Instalazioak
Oziak

ITURGINTZA

berriozabaleta

Iturgintza • Berokuntza

gremioen koordinaketa
jose miguel acedo

mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55
berriozabaleta@yahoo.es
48230 Elorrio (Bizkaia)

GARBIKETAK

AZKARGI GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfombrak

Goietia, 46 - 2 esk - Elorrio - 615 79 12 15

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta

PUJANA

ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

Solaguren kalea 3 • ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.sl@terra.es

urtiaga

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

LORAZAINTZA

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

ARGIZTATZE TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide

iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Zaldua eta Berriz ezinak jota dabilta etxetik kanpo

Goren mailako azken postu bietan egotearen arrazoietakoa bat kanpoko partidak dira; orain arte ezin izan dute punturik eskuratu



Iurretako igoera postuan dagoen bitartean, Zalduak zuloko postuetatik irten gura du. K. Aginako

Bederatzi hilabete irauten duen liga batean, kirola edozein dela ere, erregulartasuna, oreka eta konstantzia aipatzen dira bertute nagusien artean. Astebururo ez bada ere, apurka-apurka puntuak batuz inu-

rri lana egitea garrantzitsua da. Zaldua eta Berriz, ordea, ezinean dabilta oraingo, eta goren mailako azken postu bietan daude. Etxean lortutako emaitzak ez dira lasaigarriak —zazpi partidatik bakarra irabazi du Zalduak eta bi Berri-

Etxean partida guztiak irabazi dituen Loiu bisitatuko du Zalduak

Nobedadeak Kurutziaga eta Tabirakoren webguneetan

Tabirako klubeko elkarrizketak sartzen hasi da; Kurutziagak webgunea eraberritu du

Tabirako Baqué saskibaloi kluba bazkide, entrenatzaile, zuzendari, babesle eta abarren elkarrizketak sartzen hasi da webgunean (www.tabirako.com) martitzen eta eguenetan. Horretara, kluba osatzen duten arlo anitzetako pertsonak herritarrengana hurreratu gura dituzte. Esaterako, Itsaso Gartzia Tabirakoko presidenteari egin diote elkarriz-

keta. Badakizue zer musika talde dituen gustuko? Dire Straits, Queen eta Mocedades. Eta zeintzuk dira bere hiri kuttunak? Bilbo eta Londres.

Bestalde, Kurutziaga Ikastola areto futbol taldeak webgunea eraberritu du (www.kuru.es). Partiden kronikak, argazkiak eta bideoak aurkitu daitezke, besteak beste. ■ J.D.

Portugaleten jokatu du Kulturalak

Play off postuen borrokan ari ziren zuzenaren kontra jokatu du asteburuan Durangoko Kulturalak. Portugalete laugarren dago, 30 puntugaz, eta durangarrek 24 dauzkate. Portugalete defentsa gotorra du; golik gutxien jaso duten bigarren taldea da, Laudoren atzetik; 10 gol 16 partidatan.

Urtea amaitu aurretik Santutxu eta Lagun Onak taldeen kontra jokatu du Durangoko Kulturalak. ■ J.D.

zek—, baina etxetik kanporako jarduna da kezagarriena. Bien artean kanpoan jokaturako 12 partidetan ez dira kapaz izan puntu bakar bat batzeko. Denak galdu dituzte. Berrizburutik eta Solobarriatik urrun etxean adina puntu batu balituzte, jaitziera postuetatik libre egongo lirateke bata zein bestea.

Zalduak gaitz izango du marka hori asteburu honetan apurtzea, Loiu liderra bisitatuko du-eta. Loiu etxean jokaturako neurketa denak irabazi ditu.

Berrizek marka txarra apurtzeko aukera du Basurtoren zelaian

Berrizek, aldiz, ibilbide eskasa aldatzeko aukera du Basurtoren zelaian. Basurto azken hirugarrena da, eta jaitziera postuan dago.

Iurretako, igoera postuan

Bestelako ibilbidea darama Iurretakok. Loiu liderragaz puntuetara berdinduta dago igoera postuan. Ez da talde golegilea, baina oso gaitza da eurei golik sartzea; azken sei partidetan (Mungia, Iturigorri, Moraza, Berriz, Begoña eta Ugao) atea hutsean mantentzea lortu dute. Horrela, azken asteetan Iturigorri, Berriz eta Begoñaren kontra gol bat sartzea nahikoa izan dute hiru puntuak batzeko.

Zapatuan mailako bigarren talderik golegileena den Padura hartuko dute etxean. ■ J.D.

Maumeko Gazta onena Mallabiko idi-probetan

Mallabiko pisu neurtuko idi proba txapelketa Maumeko Gazta idi pareak irabazi zuen: 53 untza eta 5,57 zentimetro egin zituen. Mañukobenta (512 untza) eta Alegria (49 eta 3/4) geratu ziren bigarren eta hirugarren. Ondoren, Maio- ra, Legarreta, Argoitia, Urkiaga eta Zubibarrri sailkatu ziren.

Txapelketako irabazleak 390 euro irabazi zituen; bigarrenak 330 euro eta hirugarrenak 270 euro. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Deusto

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

GOREN MAILA

Iurretako - Padura

Zapatuan, 16:30ean, Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Derio B

Zapatuan, 15:30ean, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Zaldua B - Extremeño

Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian

Berriz B - Otxarkoaga B

Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

Iurretako B - Ermua B

Zapatuan, 18:40an, Larrakozelain

LEHENENGO ERREGIONALA

(emakumeak)

Iurretako -

Enkarterri Neskak

Domekan, 12:00etan, Larrakozelain

Iurretako -

Enkarterri Neskak

Domekan, 12:00etan, Larrakozelain

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa - Santurtzi

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

EUSKAL LIGA

Kurutziaga Ikastola -

Mamarigako

Zapatuan, 19:15ean, Landako kiroldegian

GOREN MAILA

Presion Break -

Abadiño Lagun

Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiño Gaztetxe -

Dantxari

Zapatuan, 15:10ean, Elorrioko udal kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Gu Lagunak -

Egartsuak

Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian

Gu Lagunak -

Egartsuak

Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian

SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA

(emakumeak)

Tabirako - Caja Vital

Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

(emakumeak)

Julza-Zaldua -

Mungialde

Barikuan, 20:30ean, Zaldibarko kiroldegian

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

DRT - Barcelona

Domekan, 12:00etan, Arripausetan

EUSKAL LIGA

Elorrio - Unl. Bilbao

Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko errugbi zelaian



AMALURRA>



Nekazaritzako Lurren Bankuko lehen partzelak banatu dituzte

Lehenengo onuradunak zazpi nekazari eta abeltzain dira; Datorren urtean, gutxienez beste bost partzela banatuko dira

Bizkaiko Foru Aldundiak Busturian eta Bermeon eskuratu dituen partzelak banatu ditu, zazpi nekazari eta abeltzainen artean. Jardueraren truke "zentzuzko errentak" ordainduko dituzte onuradunek, eta 5 urte-tik 30 urte bitarterako kontratuak sinatu dituzte, lurretan euren jarduerak garatzeko.

Bazkarako, hegaztien hazkuntzarako, barazkigintzarako eta erlezaintzarako erabiliko dituzte partzelak. 4.400 hektareatik 112.400 hektareara bitarteko azalera daukate partzela horiek, eta Bizkaiko Nekazaritza Lurren Bankua sortu zutenetik banatu dituzten lehenengo partzelak dira.

Nekazaritza Lurren Funtsa sortuta, Bizkaiko Aldundiak nekazaritzan jardun gura duten pertsoneri lurra eman eta nekazaritza-ustategien iraupena bermatu gura du. Hau izan da lurren lehenengo adjudikazioa,

eta, Aldundiko iturriek diotenez, hurrengo 2012an egingo dute. Gutxienez bost partzela banatuko dituztela aurreratu dute.

Onuradunen aukeraketa

Lurra banatzeko irizpideak Nekazaritza Lurren Bitartekaritza eta Ikuskaritzarako Bulegoak proposatu ditu, eta Aldundiak eta bai EHNE bai ENBA sindikatuek onatzen dituzte irizpideok. Kontutan hartu dute ekoizleak ekintzaileak izatea, eta gazteei, ustiapen berriei eta emakumei eman gura izan diete bultzada berezia.

Lurren truke ordaindu beharko duten prezioa Balioztatzeko eta Prezioak Jartzeko Batzordeak ezarri du. Aldundiak horrela erabaki du, "prezioen espekulazioa saihesteko". Errentak urtean 42,44 eurotik 2.191,45 eurora bitartekoak dira. Lurren azalera eta jardueraren dimentsioa hartu dituzte

kontutan, besteak beste, prezio horiek ipintzeko.

Proiektuaren helburuak

Nekazaritza sustatzeko eta sektorearen lehiakortasuna areagotzeko asmoz ipini du abian Aldundiak Nekazaritza Lurren Bankua. Gazteak nekazaritza eta elikadura sektorerara ekartzea da egitasmoaren helburu nagusietako bat. Horrez gainera, "ingurumena zaintzen duen nekazaritza iraunkorra" garatzen lagundu gura dute.

Elikadura-sektore indartsu eta dinamikoa lortu gura dute lurra erraztuz. Lurralde Historikoko ustategien errealitatea kontutan hartu dute horretarako. Aldundiko Nekazaritza Sailetik nabarmendu dutenez, ustategi gehienak "familiarak dira, eta mendialdean eta inguru behartsuetan egoten dira". Nekazaritza Sailak egitasmoaren harrera ona nabarmendu du.

Lurra bazkarako, hegaztien hazkuntzarako, barazkigintzarako eta erlezaintzarako erabiliko dira

Gazteak nekazaritzara erakartzea da Nekazaritzarako Lurren Bankuaren helburuetako bat

anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitetz, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Bolibar. 34 m2 x 3. Teilatu berria. Proiektua. 3 gela, 40 m2ko terraza. 150.000 euro. Tel.: 660-35 80 67

Abadiño. 4 urte. 2 logela, 2 komun, sukaldea, garajea, trastelekua. 615-00 72 16

Atxondo. 75 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia. Oso eguzkitsua. Berogailua. Berritzatua eta al-tzairuz hornitua. 180.000 euro. Tel.: 655-73 74 47.

Berriz. 80 m2. Oso kokapen ona. Guztiz jantzita. Sukaldea, egongela, komun handia, 2 logela. Zoru erradian-tea. Tel.: 607-52 24 26.

Durango. Atiko zoragarria Alde zaharrean. Eguzkitsua. Terraza handia. Kalefakzioa, aire egokitua. 665-94 46 74

Elorrio. 162 m2-ko terraza duen atikoa (73 m2). 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta trastele-kua. 615-75 59 85 (goizez) 636-22 49 02 (arratsaldez).

Elorrio. Zentrikoa den 90 m2-ko pisua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, garaje partzela eta trastele-kua. Tel.: 657-79 39 38.

Elorrio. 76 m2-ko etxe berria. Erdigunean. Sukalde eki-patua, 2 logela, 2 komun eta 10 m2-ko trastelekua. Gara-jea aukeran. Prezioa: 38 milioi. Tel.: 634-45 72 01.

Gasteiz. 57 m2. Kalefakzioa. Igogailua. 2 logela, 2 komun, sukaldea, balkoia, garajea, pizsina eta belardia, altzarie-kin. Telefonoa: 665757807

Mallabia. Bi bizitzako base-rria. 4 ha.-ko lursaila. Tel.: 653-01 20 11.

ERRENTAN EMAN

Atxondo. 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Tel.: 680-42 77 02

Donostia. Lokal moduko etxebizitza antiguo auzoan. Persona batentzako egoki-tua. Eguskitzua da eta lasaia. 550 euro. 609-48 11 24.

Elorrio. Logela, komuna eta sukalde/egongela. Garajea plaza irekia. 687-74 04 49

Elorrio. Herrigunean. 3 lo-gela, 2 bainugela. Trastele-kua. Arnueblatua. 600 euro

hilean. Tel.: 634-45 72 01.

lurreta. Gelak alokatzen dira maspe kalean, abendutik au-rrera. Tel.: 687-58 66 37

ERRENTAN HARTU

Durungaldea. Pisu bila na-bil durango, iurreta edo elo-rrion. Tel.: 603-07 16 26

Durungaldea. Pisu bila na-bil. Pertsona arduratsua. Tel.: 617-86 00 55

PISUA KONPARTITU

PISU BILA

Durango. Mutil gaztea pisu konpartitu batean logela bila. Durangon edo iurretan. Deitu lasai. Tel.: 658-42 86 12 edo 658-71 16 42 (Malick/Iñaki).

PISUKIDE BILA

Durango. Logela alokagai. Sukaldea eta komuna kon-partitzeko. 650-73 87 24

LOKALAK

SALDU

Abadiño. Matiena. 44 m2-ko txoko berria. Baimenekin. Tel.: 672-25 80 41

Elorrio. 170 m2-ko lokala alokagai edo salgai.Erdialde-an. Eskaparate handiekin. Tel.: 94-658 21 01.

Gasteiz. Azken erabileratailer mekanikoa. Garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Alokatzeta ere posible da: 800euro/hil. 665757807

GARAJEAK

SALDU

Berriz. 42 m2-ko garaje itxia. Ate automatikoa. Ur eta argi instalazioak. Komuna eta bodega sukaldeagaz. 2 edo 3 kotxe. Tel.: 615-75 21 36

Durango. Garajea Montorretan. 2 lerro, autokarabana-rako aproposa. 652-76 81 31.

ERRENTAN EMAN

Durango. Partzela alokagai alluitzen. Tel.: 669-63 03 12

Durango. Zabalik dagoen garajea muretatarren. Tel.: 660 38 59 95/660 38 60 43

LURSAILAK

SALDU

Abadiño. Matienan. 2.000 m2, erreka ondoan eta bide ertzean. Hainbat fruitu arbo-la. Tel.: 658-75 65 12.

Bernedo. Lursail eraikigarrria. 308m2 eraikitzea posi-ble. Inguruan etxebizitza eta golfeko hotela. 665757807

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durango. Neska gazte eus-kalduna tabernari lanak egi-teko prest. 615-71 62 32.

ETXEKO LANAK

Durungaldea. Ordu bat-zuetan garbitasun lanak egi-teko edota umeak zaintzeko prest. Tel.: 94-681 19 98

Durungaldea. Etxeko lane-tarako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edota garbiket-a lanetarako. Interna edo ex-terna. Tel.: 636-85 20 59

PERTSONAK ZAINDU

Durungaldea. Neska gazte euskalduna umeak zaindu edo etxeko lanetarako prest. Gabinete pedagogikoan egonda. Tel.: 648-13 13 27

Durungaldea. Asteburue-tan edo gauetan nagusiak edo umeak zaintzen edota etxeko garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel.: 603-07 16 26

Durungaldea. Ume edo na-gusien zaintzarako edota gar-biketa lanetarako prest. Inter-na edo externa. 628 00 22 17

Durungaldea. Emakume arduratsua nagusien edo umeen zaintzan, garbiketetan, lan egiteko prest. Orduka edo jardunaldi osoan. Erreferen-tziekin. Tel.: 620-82 85 79

Durungaldea. Bertako emakumea ume edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 94-658 33 32

Durungaldea. Etxeko la-guntzaileak gara. Pertsona nagusiak zaintzeko prest gau-de. Tel.: 690-28 60 71

Durungaldea. Interna edo externa modura lan bila. Ume edo nagusien zaintzan edota garbiketak lanetarako. Tel.: 679-71 64 42

Durungaldea. Neska eus-kalduna asteburuetan umeak zaintzeko prest, bai egunez zein gabez. Tel.:628243602

Durungaldea. Emakume arduratsua lanerako prest, pertsona nagusiak edo ume-ak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. 660-64 20 98

Durungaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, ex-terna/ interna. 638-20 34 50

Durungaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, ex-terna/ interna. 689-30 85 82

Durungaldea. Emakume arduratsua umeen edo nugu-sien zaintzan edota garbiketa lanetarako prest. Interna, ex-terna, orduka. 659-73 92 65

Durungaldea. Goizez, arra-tsaldez zein gauetz lan egiteko prest. Garbiketa lanetarako edota gauetz pertsona nugu-siak zaintzeko. 690 68 73 95

Durango. Umeak zein nugu-siak zaintzeko eta garbiketara-ko lan bila. Esperientzia. Tel.: 616-30 04 15.

Durango. Neska gazte eus-kalduna haurrak zaintzeko prest, haur-hezkuntzako ikasketak burutua. Esperien-tziaduna. 615-71 62 32.

Durango. Umeak eta per-tsona nagusiak zaintzeko zein garbiketarako lan bila. Tel.: 697-12 64 38

Durango. Emakume ardura-tsua umeak edo pertsona na-gusiak zaintzeko edota garbi-keta lanetarako prest. Tel.: 660-64 20 89

lurreta. 51 urteko emakume euskalduna lan bila, batez ere, arratsaldez. Ume zaintzan es-perientzia. 663-32 84 25

IRAKASKUNTZA

Durango. Sorterriz ingelesea den irakaslea, esperientzia-duna eta trinity college cer-ttesolak kualifikatua, klase partikularrak emateko prest. Zure beharretara egokিত. teignvalleyenglish@gmail.co m. Tel.: 635 26 62 51 (tristan)

GAINERAKOAK

Durungaldea. Ipuin konta-keta eta monologo humore-tsua. Tabernetan, ezkontze-tan, juergetan,... Tel.: 651-36 97 69. Roman

Bilbo. Negoio txiki eta ertainetarako kontrol-panela-dun web atari profesionalak telefonoa: 662 143 692

Durango. Neska gazte eus-kalduna etxeko lanak egin, haurrak zaindu, klase-partikularrak eman, tabernari la-nak egin edota garbitzaile la-nak egiteko prest. Tel.: 615-71 62 32.

Durango. Neska euskalduna

klase partikularrak emateko prest, ega eta first titulua, eta farmazia ikasten. Tel.: 638-85 78 60.

Durango. Goizetan umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest. Haur hezkun-tza eta hezkuntza berezian di-plomatusa. 695-75 23 25.

Durungaldea. Hogei urteko neska lanerako gertu; taber-netan, saltzaile, atariak garbi-tzen, pertsona nagusiak zain-tzen.... Tel.: 662-29 73 71.

LAN ESKAINTZAK

IRAKASKUNTZA

Durango. Marrazketa tekni-korako, algebra eta fisikarako irakaslea behar da. Tel.: 659-84 17 75 edo 685-71 86 54

GAINERAKOAK

Durango. Illeapaintzailea. Ezinbestekoa: heziketa, espe-rientzia . Sartu. Erref.: 8941. Tel.: 94-620 04 49

Elorrio. Aseguru-merkataria. Ezinbestekoa: diploma-tua, esperientzia. Sartu. Erref.: 11993. 94-620 04 49.

lurreta. Cad/cam diseinua eta zk mekanizazioa. Ezin-bestekoa: bi urteko experien-tzia, solidworks menpera-tzea, zenbakizko kontrol fre-satzeko makinekin esperientzia izatea. Lanaldia osoa zaititua. Sartu. Erref.: 11348. Tel.: 94-620 04 49

lurreta. Metalak lantzeko makina-tresnen mekanikari konpontzailea. Ezinbestekoa: mekanikan formakuntza, 5 urteko esperientzia. Lanaldi osoa. Sartu. Erref.: 12594. Tel.: 94-620 04 49

lurreta. Delineatzaille proiektugilea. Ezinbestekoa: autocad eta solidwork-en 5 urteko esperientzia. Lanaldi osoa. Sartu. Erref.: 12603. Tel.: 94-620 04 49.

lurreta. Industria-makinen lantegiko talde-burua, oro har. Ezinbestekoa: forma-kuntza, 5 urteko esperientzia. Lanaldi osoa. Sartu. Erref.: 12616. Tel.: 94-620 04 49.

NEGOZIOAK

SALDU

Mañaria. Estanko lizentzia salgai . Tel.: 94-681 69 49

Denetarik

SALDU/EROSI
Furgonetako jarlekuak salgai. Traffic furgonetako-

IKASTEKO TEKNIKAK

IKASTARO BERRIA

ABENDUAN

www.psicologo.biz

Jon Arruabarrena – Psikologoa
Francisco Ibarra, 6 (Durango)

946 033 246
629 245 728

ak. Hiru plazakoa. 400 euro. Tel.: 650-73 51 56.

Piano elektrikoa salgai. Yamaha clavinova clp 150. Kontakua: 650-17 22 85

Ibilgailuak

AUTOAK

SALDU

Smart kotxea salgai. Fortwo coupe passion salgai. 62cv. 48.000 km. la berria. 676-61 71 54 / 676-98 33 06

Suzuki sj 410 salgai. Hard top (samurai). Gasolina. 1000 cc. 45 zaldi. Tel.: 667-48 51 66 edo 667-48 54 36.

BESTE IBILGAILUAK

SALDU

Autokarabana salgai. 2009. 6 plazakoa. Egoera onean. Tel.:652-76 81 31.

Autokarabana salgai. Benimar sport 310. 50.000 km. 3 urte, 6 pertsona. Ekipa-mendu osoa. 31.000 euro. 676-61 71 54/ 676-98 33 06

Aisia/kirola

KIROLAK

SALDU

Bizikletarako umeen aul-kia salgai. Ume txikia atze-an eramateko eroso. Oso gutxi erabilia. 648-63 58 06

ANIMALIAK

SALDU

Astoa salgai. 2 urte. Arra. Etxean jaio eta hazitakoa. Txi-pa jarrita. Tel.: 650-17 22 85.

Txahalak salgai. 6 hilabe-tekoak. Tel.: 628-28 23 01.

Txakurra salgai. Gold terrier. 4-5 urte ditu. Zuria. Tel.: 653-72 70 18

Arratoi txakur arra opari. Urte bat. Tel.: 94-681 96 10

Arratoi txakurra opari. 2 hilabetekoa. 656-74 34 57.

Artzai txakurra opari. Bi hileko artzai txakurra opari-tzen dugu. Nahi duenak deitu 94-681 43 24 telefonora

Txakurra opari. American stanford terrier arra opari. 2 urte. Bakunen kartilla egune-ratuta. Tel.: 661-30 41 72.

GAINERAKOAK

Txakur pasiatzailea. 25 urteko mutil bat naiz eta zure txakurra pasiatzeko prest nago. Ordu erdia, 4 euro; ordu bete 7. Tel.: 647-05 02 69.

MUSIKA

EROSI

Cd erreproduktore eta anplifikadore bila. Biga-rren eskuko cd erreproduktore-a eta anplifikadorea erosiko nuke. Tel.: 606-26 62 44.

EMAN

Gitarra eta baxu klaseak. Gitarra eta baxu klaseak ematen ditut, durangon. Tel.: 616-31 02 49 edo 94-620 05 98. karsaso4@hotmail.com

Trikitixako klaseak. Triki-tixako klaseak ematen ditut. Tel.: 661125647 .

GAINERAKOAK

Gitarra eskola partikula-rrak durangon. Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jaz-za, funka eta abar. Eskalak, akordeak, erritmoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa... Tel.: 650-17 22 85.

OPORRAK/BIDAIAK

SALDU

Kanpadenda salgai. Ma-rechal markako kanpadenda salgai. Behin bakarrik erabi-lia. 4 pertsonentzako. 120 euro. Tel.: 615-00 72 16

Familia/etxea

ALTZARIAK

SALDU

Altzariak salgai. 1,50m-ko haritzeko ohea saltzen da, bi ohe-mahairekin batera: 400 euro. Koltxoi berria: 100 euro. 6 kajoidun sinfoniera: 150

euro. Banak markako apal rustikoak: 400 euro. Mahai rustikoak: 100 euro. Tel.: 610-41 55 11

Hozkailu konbinatua sal-gai. Hile baten bakarrik era-bilia. Martxoan erosit. Ecron markakoa. No frost eta 2 ur-teko garantiarekin. Saltzeko premia. 300 euro, negozia-garriak. Tel.: 691-35 40 31

Hozkailua combi new pol no-frost. 200 euro.. Fri-gorifico-congelador new pol experience xr-1850 ix nf. No-frost sistemaduna. Altzairuz-ko atek. 4 urtetan martxan egondakoa, egoera onean dago. Neurriak: altuera 185 zm x zabalera 59 zm. 2 ate. Kristalezko apalak. Izozkai-luaren kapazitatea: 75 litro. Hozkailuaren kapazitatea: 217 litro. 200 eurotan salgai. Tel: 680-59 73 79.

Izozkailua ia berria salgai. 85 litroko edukiera. Prezioa: 100 euro. Tel.: 94-655 06 04 edo 672-41 09 38

HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

SALDU

Bikiendako firstwheels karro urdina. Bikiendako firstwheels karro urdina. Oso gutxi erabilia. Bijesarleku, bi kapazo, plastikoa, bi zakutxo zuri (pikezkak)Jeta moskito-endako sareak. la berria. Be-giratu web-eko argaz-kiak.450 euro. Deitu konpro-miso barik. Tel.: 659-34 72 81(Iñaki).

Umeen karroa salgai. Bu-babu markakoa. Egoera one-an. Kapazoa, aulkia, aterkina, poltsa, bandeja eta euli-sa-re. Gorria. Negurako 3 saku eta udarako 3 forrorekin. 250 euro. Tel.: 607-86 32 24

GAINERAKOAK

Umeak zaintzeko prest. Neska gazte eta euskalduna naiz, umeak zaintzeko prest dagoena 2011-2012ko ikas-turtean. Durangaldeko edo-zein herritan, goizez zein arra-tsaldez, ez dago arazorik. Goi mailako haur hezkuntzako ti-tulua. Edozein galdera egite-ko: 615-00 59 64

e t x e a

i a t

i a t

e t x e a

PLATERUENA

Astelehena
ASTELEHENGORRI

Asteartea
ARINARIN

Asteazkena
AHOBETEMUNDU

Osteguna
GEUREKONTU

Ostirala
BARIKUNASAL

-%10

